

86

4 euro • 2004ko MARTXOA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: MARIANO FERNANDEZ ENGUIA • ESPERIENTZIA: KANTUAREN HERRI KULTURA BIZIA • ESPERIENTZIA: MITOLOGIA ETA MOZORROAK • ARRATIA BAILARA •



GAIA

Telebista etxean eta eskolan

Pailazo en liburua...

Egilea: Jose Ignazio Ansorena

Marrazkiak: Jesus Lucas

Pailazo en eskuliburua

J.I. ANSORENA

TXIRRI
MIRRI
eta
TXIRIBITON



Liburu eder eta mamitsu honetan pailazo en jardueren inguruko bixikeria eta jakingarri asko aurkituko duzue.

- Pailazo en historia.
- Pailazo -taldeak antolatze ko behar dena.
- Pailazo en saio eta emankizunik adierazgarrienak.
- Txiri, Mirri eta Txiribiton en hainbat esketx eta gidoi.
- Beraien abestien letrak eta partiturak (ahotsarena, pianoarena eta txirularena).

Eskolarako material egokia da oso. Antzezlari asko eta poltrak antola daitezke material honetan oinarrituta.

... Pailazoarena
EGITEN IKASTEKO






gaia

TELEBISTA ETXEAN ETA ESKOLAN

Ez da aparailu berria telebista. Gure etxeetan ordo baino hobeto sartuta dago eta eskoletan... Horren inguruko hausnarketa egiten ari diren batzuren iritzia jaso dugu, telebistaren erabilpena nolako den ikas-tetxeetan eta etxeetan.



elkarrizketa

MARIANO FERNANDEZ ENGUITA

Ikastolen Elkarteak Partaidek antolatutako II. Topaketetan parte hartu zuen Mariano Fernandez Enguitak, eta eskola publiko-pribatuaren arteko dikotonomia izan zuen ardatz.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

TELEBISTA ETXEAN ETA ESKOLAN

18 elkarrizketa

MARIANO FERNANDEZ ENGUITA

26 esperientzia

Kantuaren herri kultura bizia

Mikel Erramouspe

28 esperientzia

Mitologia eta mozarroak

Zarauzko ikastolako inauteriak

31 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Nafarroako Sortzen-Ikasbatuaz en etorkinentzako proiektua

Itziar Aramaio

35 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Arratia bailarako eskolak

Herrian sareak sortu, Europar hizkuntza gutxituen trukea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gobi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-III-1.

Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08
Faxa: 943/ 37 21 54

editoriala

martxoa

Zer egin hezkuntza egiturak haurra kontuan hartzen ez duenean?



Pedagogoek diotenez, funtzionaritzaren ondorioz gertatzen den leku mugikortasunak eskola bakoitzeko hezkuntza proiektua era egokian garatzea oztopatzen du.

Aldizkaria gauzatzeko ahaleginean ari ginela, Euskadi Irratiko "Arratsaldeko" saioa entzuteko parada izan genuen. Gure artean askotan aipatu den gai bati buruz ari ziren: irakasleen mugikortasun handia nola gertatzen den hainbat ikastetxetan.

Egoera horretan lanean ari direnak elkarriketatzen zituzten. Zortzi elkarriketatu, zortzi iritzi eta antzeko zortzi egoera. Ia denek herrialde desberdinetan jarduten zuten lanean, orain hemen, gero han eta nork jakin bihar non!

Sakeleko telefonoa eta Euskal Herriko mapa eramaten omen dituzte beraien bere gorputzeko atal erantsiak bailiran, ezinbesteko laguntzat harturik, betiere administrazioaren deia zain. Eta behin deituta, lan eskaintza aukeratzeko, mapa ateratzen omen dute joan beharreko herriak non dauden aurkitzeko eta zein errepide mota dauden aztertzeko. Askotan, zenbait herritara iristeko komunikabide eskasak izaten dira, eta horrek ia derrigorrez

auota izatea eskatzen die. Zenbaitetan, goizean deitu eta arratsalderako joan behar omen dute aukeratutako ikastetxera, eta gehienetan, egun batetik bestera. Hori guztia, egun bateko ordezkapena egiteko izan liteke eta ikasturte osokoa izatera ere irits liteke. Elkarrizketatuetatik bik edo hiruk lanordu herena egiteko ikasturte osorako kontratuazuten.

Horietako bat duela bost ikasturte hasi omen zen lanean eta, jada, 45 ikastetxetatik pasatu omen da. Eta duela hiru urte 16 ikastetxetatik pasatu omen zen ikasturte bakar batean.

Hala ere, denboraren poderioz puntuak irabazten eta aukeretan hobetzen ari omen direla eta, gustura zeudela azaltzen zuten denek.

Hori guztia entzunda, aipatu saioaren arduradunekin harremanetan jarri ginen eta ea zerk bultzatu zituen gai hori lantzera galdetu genien. Hauxe beraien arrazoiak: Eskola Txikien gaia lantzean, Errezilgo herri ikastetxera joan omen ziren. Bertan, Lekeitioko irakasle

bat eta Markinako beste bat omen zebiltzan ordezkapen lanetan. Tokitakoak! Eta egoera horrek atentzioa deituta, gaia lantzeari ekin zioten.

Hezkuntzatik kanpokoei atentzioa deitzen omen die, eta hezkuntza munduan gabiltzano?

Lehenik eta behin, garbi utzi nahi dugu denok lanerako eskubidea dugula. Eta egoera hori jasaten dutenek ezer gutxi egin dezakete egiten dutenetik aparte: lana eskatu eta baldin badago, dagoen tokira joan.

Eta hori esanda, non gelditzen da ikastetxearen hezkuntza proiektua? Non ikasleen, gurasoen eta gainontzeko langileen eskubideak?

Ezin bada ikastetxeka, ezin al dira Berritzeguneak bezala eskualdeka antolatu ikastetxeen proiektuak, ikasleak eta abar hobeto ezagutu ditzaten?

Baina ez izan inozoak! Gaur egungo egoera eta antolaketa langileen eskubidetzat saltzen jarraituko dute zenbaitzuk.

kronika

Iparraldean ikastetxeetako eta lizeoetako irakasle izateko CAPES azterketa gainditu behar da. Azterketa hori Frantziako Gobernuak bideratzen du, eta beraz, berak erabakitzen du zenbat lanpostu eman.

Orain arte hizkuntza gutxituetako irakasleak %45 osatzen baldin bazuten, orain %27ra jaitsi du kopuru hori. Hori ikusirik, aipatu azterketa zuzentzen duten epaimahaikideek (euskara, bretoiera, katalana eta okzitania sailekoek) Gobernuak hizkuntza gutxituen inguruan agertu duen mespretxua gaitzetsi dute. Gaurdaino CAPES azterketaren bidez eskaintzen zituen lanpostuak erdira, herenera edota laurdenera jaitsi ditu. Horrekin, beraz, iraskasle izateko eskaintza murriztu egiten zaie hizkuntza gutxituetako irakasle gaiei. Horrekin batera, erabakia hartzeko modua ere gaitzetsi dute, azterketa eguna baino hilabete lehenago eman baitu erabakiaren berri, ikasleekiko batere errespeturik erakutsi gabe.



Gaztelaniazko eta ingelesezko haur eskola ireki dute Iruñean.

Iruñeko Arrotxapea auzoko haur eskola berria gaztelaniaz eta ingelesez izango da, Iruñeko Udalak hala erabakita. Auzoko gurasoek, Sortzen-Ikasbatuazek eta Iruñeko beste haur eskoletako hainbat langilek egindako eskaerari muzin egin dio, beraz, udalak, eskola euskaraz izan zedin eskatzen baitzuten. 2.700 sinadura bildu zituzten euskarazko ereduaren alde eta udaleko erregistrora eraman ere bai. Auzoko gurasoen artean inkesta bat ere egin zuten, eta gehienek haur eskola euskaraz izan zedin nahi zuten.

Une honetan Iruñean bederatzi haur eskola daude, eta horietatik bi baino ez dira euskarazkoak, eta biak Txantrea auzoan daude. Orain Arrotxapean irekitakoa, hamargarrena, ingelesa es-

kainiko duen lehen haur eskola publikoa izanen da.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak “esperimentutzat” jo du haur eskola horrekin egingo dutena. Eta ez horrekin bakarrik, baita auzo bereko Cardenal Ilundain ikastetxearekin ere. Izan ere, zentro horretan iazko ikasturtean ingeleseko eredu jarri zuten. Erabaki biak inolako oinarri pedagogikorik gabeak direla adierazi dute Sortzen-Ikasbatuazeko kideek.

Haur eskolez gain, badira beste zerbitzu mota batzuk etxeko txikien zainketaz eta heziketaz arduratzen direnak. Iruñean Gaztelan fundazioa dago, eta Lagunen Etxeak izeneko proiektua du martxan jarria. Etxe partikularretan haurrak jasotzen dituzte eta zainzaile batekin egoten dira. Gurasoek familieren eta lanaren esparruak uztartzeko aukera izan dezaten eskaintzen dute zerbitzu hori. Normalean haur eskolatan lekurik gabe gelditzen diren gurasoek jotzen dute bertara.

Memento honetan Gaztelanek bederatzi etxe ditu martxan jarrita, eta urte bukaerarako beste laupabostzabaltzea espero dute. Euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dute zerbitzua; etxeen erditan euskaraz eta beste erditan gaztelaniaz, une honetan. Haurrekin egoten diren zainzaileak psikologian, pedagogian edo hauren zainketan heziketa dutenak dira, edota aurretik esperientzia zabala dutenak.

Poesia ezin da irakatsi, gehienez ere erakutsi egin daiteke.

Juan Kruz Igerabide



EAEko Unibertsitate Legea onartu da

Eusko Legebiltzarrak onartu du EAEko Unibertsitate Legea EAJ, EA eta EB-IUren aldeko botoekin, SAREN absentsioarekin eta PPren eta PSOE-EEren aurkako botoekin.

Iazko urte amaieran Legebiltzarrean ez zen onartu lege proiektua, SAK egindako zuzenketak sartu ondoren, EAJ, EA eta EB-IUren artean desadostasunak sortu baitziren. Oraingoan, ordea, lege egitasmo moduan aurrera ateratzea lortu da.

Prozesu luzea bizi behar izan du honaino iritsi ahal izateko. Espainiako Gobernuak LOU legea indarrean jarri zuenean, unibertsitate publikoak eta autonomia erkidegoak zenbait aldaketa egitera behartu zituen. Horrela, Jaur-laritzak EAEko ezaugarriei eta berezitasunei egokitutako legea egiteko ardura

hartu zuen, beti ere LOUren irizpide nagusiak aintzat hartuta.

2002ko udazkenean hasi zen Jaur-laritz legea egiten. Lehendabizi, unibertsitate arloko adituen iritzia jaso zuen Delphi txostena izeneko kontsulta prozesua zabalduz. Horrela, 130 lagunen iritzia jaso zuen. Ondoren, proposamena prestatu zuen.

Lege honen irizpide nagusiak bost direla esan daiteke: EAEn dauden unibertsitate guztiak sistema gisa hartzea; Europako unibertsitate sarean sartzea; eleanitza izatea; baliabideak malgutasunez erabiltzea; eta kalitatea bultzatzea. Hori guztia bideratzeko hainbat tresna zehazten ditu legeak: irakasleak eta ikertzaileak kontratatzeako sistema malgua eta eraginkorra izatea; Ebaluaziorako eta Kreditaziorako Agentzia sortzea; Unibertsitateetako Euskal Kontseilua sortzea EAEko unibertsitate sarea koordinatzeko; eta Unibertsitate Plana aurrera eramatea unibertsitate sistema antolatu ahal izateko.

Hirukoa osatzen duten alderdiak gustura agertu dira lege egitasmoaren onarpenarekin. Bestelakoa da PSE-EEren eta PPren jarrera. PPko legebiltzarkide Iñaki Ortégak Madrilgo Gobernuak legeari seguru enik helegitea jarriko diola iragarri zuen, eta egin du. Ikusi egin beharko da hemendik aurrera zer gertatzen den. Orain arteko prozesu luzea amaitu gabe dagoela esan daiteke.

Paueko Departamenduko Hezkuntza Kontseiluak datorren ikasturterako hezkuntza publikoko eskola kartaren zirriborroa egin du, eta eragina izango du Iparraldeko eskola publikoetan. Eskola kartak azken urteotako ildoei jarraitzen die, eta beraz, gurasoen eta sindikatuen usteak egiaztatu egin dira: gela elebidunen eskaerari ez zaio erantzungo.

Gela elebidunei dagokionez, Hendaiaiko Lizardi eskolan eta Jatsun zein Larresoron postu erdia galduko dute. Aldiz, Kanbo, Ziburu, Hazparne, Donibane Lohitzune eta Hendaiaiko beste bi eskolatan postu erdi gehiago izango dute.

Arrangoitze, Jatsu eta Baionako ama eskolatan postu erdina eman dizkiete. Baina hala ere, ez dira nahikoak eskaerari erantzuteko. Iaz Ikas-Bik eredu elebidunean matrikulatzeko egin zuen kanpainaren ondoren, 216 familiek

haurrak euskaraz eskolatzeko eskaria egin zuten, baina hamar familiari soilik onartu zieten; beste 206 familiek ez zuten erantzunik ukan. Nahiz eta euskarazko eskariak gora egin, Frantziako Gobernuak ez du gelarik irekitzen.

Horrekin batera, herri ttipietako eskolak ixten ari dira, eta horrek desertifikazioa dakarrela salatzen dute sindikatuek. Era berean, gobernuak lanpostuak murrizteko hartu duen jarrera kritikatzeko, hezkuntza merkantzia bailitzan bideratzen duela iritziak. Hezkuntzari baliabide gehiago ez ematea gaitzesten dute.

Telebista etxean eta eskolan





Etxeko eta eskolako lanak

Telebistak ez du garrantziarik nire eguneroko bizitzan ... Etxean zer tiki ematen diogun ikusi behar: egongelan egongo da ziur asko (gelarik garrantzitsuenan), besaulkiak bere arabera antolatuta daudela, leku guztietatik ongi ikusteko . Etxeko kideirik garrantzitsuenak dela, alegia. Hurrek leihodigitalari begira denbora gehiago eman ohi dute eskolan baino, eta gurasoekin baino. Gaurko hezitzaile nagusia telebista da. Aldiz, gurasoei kosta egiten zaie erabilera chiturratan erabaki kontzientek hartzea, eta eskolan ere ez zaio lekurik egiten.

Telebistak heziketan parte handia du, agian guraso-irakasleek baino handiagoa. Balioak eta edukiak transmititzen ditu iruditan, segundoko abiadan. Eta mezu horiek errazago helduko dira, irakaslearen azalpenak edo gurasoaren hitz jariora baino: komunikazioan, irudien eragina askoz handiagoa delako hitzena baino; telebistak asmatzen duelako emozioetara iristen, eta eskolari, aldiz, kosta egiten zaiolako ezagutzekiko harreman afektibo hori sortzen; telebistak berez duelako sinesgarritasuna, objektibo itsura; telebistak arretajaten duelako, eta gurasoei zeini-rakasleei arreta jartzeak ahalegina eskatzen duelako...

Hortik, pentsa zer garrantzia duen pantaila ondo erabiltzeak eta begi kritikoekin ikusteak. Gurasoak eta eskola kontziente ote dira telebista heziketa prozesuaren parte dela? Zer egiten du bakoitzak errealitate horren aurrean?

Gurasoei dagokie hausnartzea seme-alabek zenbat denbora eskaintzen dioten telebistari, eta zergatik. Beste aukerarik ez dutelako gelditzen omen dira haur gehienak telebista aurrean: bestelako ekintzak eskura ez dituztelako (diru arazoak medio), hirietan non jolastu ez dutelako, gurasoak eurekin egoterik ez duelako... muturreko ka-



G

Baztan: esperientzia praktikoak Haur Hezkuntzatik hasita



Juanjo GARRANTXO

Lekarozko Irakasleen Laguntza Zentroko informatika eta ikus-entzunezko aholkularia

Haurrekin ikus-entzunezkoa landu nahi duten irakasleek Baztanen badute norengana jo laguntza zuzenaren eske: Lekarozen dagoen Irakasleen Laguntza Zentroan formazioa eskaintzen dute, eta baita behar diren materialak utzi ere (bideo zein argazki kamera digitalak, editatzeko ordenagailuak...).

Lekarozko Irakasleen Laguntzarako Zentroa formatu nahi duten irakasleei zabalik dago. Formazioa bi alorretan egiten da: batetik edizio digital ikastaroak eskaintzen dira, alegia, erakusten dute bideoak nola editatu ordenagailuekin. Juanjo Garrantxo arduratzen da ikastaro horietaz, eta bere hitzetan, *“jada edozein ordenagailu koxkorrekin edita daiteke. Horren konplexua zirudiena, euren eskolan bertan egitea posible dutela irakasten diegu”*.

Formazioan beste alor bat ere lantzen dute: gidoigintza. Isabel Albak eskaintzen du mintegi hori, eta lantzen dutena da irakasleek euren gelan egin

nahi duten huraxe. Haurrei gai bati buruzko bideoa egitea proposatu ohi die, haurrentzat motibaziorik handiena horixe delako, baina izatez bideoa bera azken pausoa besterik ez da; benetan garrantzitsua prozesua da, eta prozesu horretan kritikotasuna lantzea. Horregatik, haurren kezketan zentratzeari ematen dio garrantzia Isabel Albak. Landu ditzatela haurrentzat benetan bizitzaren parte diren gaiak, eta gidoia egin bitartean sar daitezela etengabeko eztabaida kritiko batean. Edozein ikasgaitan egiten ahal da lan hori, eta diziplinartekotasuna ere eskatzen du (plastikan dekoratuak egin beharko dira, hizkuntzan bada zer landua gidoiari eta ahozkotasanari begira, natura edo gizarte gaiak landu daitezke...). Iragarriak ere kritikoki aztertzen dituzte, eta ondoren ikasleek sortzen dituzte, ikasitakoa aplikatzeko. Edo istorioetan, “zintzoak” eta “gaiztoak” bereizteko dugun joera simplea zalantzan jartzen zaie, eta pertsonaia konplexuak lantzen irakatsi (bi aldeak dituztenak).

Saldiasko eskolan (5 ikasleko eskola txikia da), 18 minutuko filma egina dute. Asteburu batean egin zuten grabaketa, askoren izerdiari esker: gurasoak, herritarrek, beste eskola txiki bateko irakaslea, eta Donostiako haurrak ere ekarri zituzten. Iturenen Haur Hezkuntzako gela batek, plastilinazko panpinekin mugimendua landuta istorio bat osatu du. Planeten gaia landu zutenez, Martitzeren inguruko istorioa asmatu zuten haurrek, eta maketak egiten ikasi zuten, planoak lantzen... Juanjo Garrantxoren hitzetan: *“okerrena da eskola askok ez dakitela besteetan zer egiten ari diren. Ikusita eskola txikiak zer egitera iritsi diren, edozein eskolaren eskura dagoen lan bat da. Bestetik, egia da irakasleak itota daudela, eduki pila bat dutelako emateko”*.

Ikastetxearen proiektua

Nafarroako eskolek eta institutuek aukera badute zentro bezala euren ikus-entzunezko proiektua Gobernuari aurkezteko, Hezkuntza Saileko Teknologia Berrietako departamentuari, hain zuzen. Onartuz gero, ikastetxeari ekipoa uzten zaio (bideokamera, ordenagailua, erreproduktoreak...), eta gainera formazioa ere jasotzen dute Irakasleen Laguntza Zentroan. Proiektuan irakasle klastro ia osoak parte hartu ohi du, eta baita askotan atezainak, sukaldariak edo gurasoek ere.

Lesakako “Teleskola” da horren adibide. Urtean zehar eskolako ekintza bereziak bideoz hartzen dituzte, eta ikasturte amaieran telesaiobat osatu. Magazine horretan ikasgela bakoitzak badu bere tarte, Haur Hezkuntzatik hasi eta zaharretaraino, ikasturtean zehar egin dutena erakusteko. Prozesu osoa haurrek egiten dute, hasi kameraz grabatetik, gidoira, agertokiak sortzetik eta muntaiaraino. Baina potoloena telebista estudioa nola antolatzen duten ikustea da; bik aurkezle papera egiten dute, beste batek erregidore lana, hiru kamera daude grabatzen, nahasketa mahaiaz beste haur bat arduratzen da... Juanjo Garrantxok harrituta kontatzen du: *“behin kazetari bat gonbidatu zuten, eta ikusita telebista estudioan zegoen muntaia, erraten zuen: ‘nik hau karrerakoez dakit zein urtetan ikusi dut!’ Eta oso erraza egiten zaie haurrei, bi astetan hartzen dute trukoa”*. Teleskola zuzenean ematen dute liburutegiko pantailan, eta gurasoek zein gonbidatutako jendeak ikusten du urtean zehar zertan aritu diren etxeko Hitchcock txikiak. Geroxeago, Teleskolako grabazioa Tipi-Ttapa telebistan ematen dute.

Antzerako proiektu bat badute Leitzan ere. Doneztebeko Mendaur institutuan, berriz, grabazioak egiten ari dira web orrian sartzeko.



Esther TORRES

Familia, telebista eta Internet proiektuaren zuzendaria

Familia, telebista eta Internet izeneko proiektuan hiru erakundek hartzen dute parte: EHIGEik (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkartea), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Euskaltel Fundazioak. Lehen Hezkuntzako 6. mailari eta DBHko 1. mailari zuzendua dago eta gurasoek, ikasleek eta irakasleek hartzen dute parte ikastaroan. Hiru urterako hitzamena da, eta proiektua amaitzerako bertan parte hartu izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko 1.500 ikaslek, 400 irakaslek eta 500 familiak.

Gurasoekin, irakasleekin zein ikasleekin lantzen dute komunikabideen mundua. Helburua pantailen erabilerrari buruz sentsibilizatzea da. Esther Torres da ikastaroaren zuzendaria, eta bere hitzetan “ez dugu komunikabidei buruzko ikuspegi apokaliptiko bat eman nahi. Hedabideak hor daude, eta jakin egin behar da ondo erabiltzen. Edukiei buruzko klase moralik ere ez dugu eman nahi, nahi duguna da estrategiak eskaintzea, jakiteko pantailak irakurtzen, programazio eta eduki horien zergatia ulertzen, eta nork bere jarrerak eta neurriak hartzen”. Esaterako, telebistari dagokio-

EAEn formazio ikastaroa: “familia, telebista eta Internet”

nean hori negozio bat dela jabetzeko lana egiten dute, eta azertu negozio hori zertan datzan, publizitateak negozioaren zer zati betetzen duen. Publizitatearen barrenak ikusten dituzte, jakiteko nola lortzen duten pertsuasioa. Alegia, ez direla edukiak aztertzeraz mugatzen, komunikabideek darabiltzaten estrategiak ere aztertzen dituzte, eta hori guztia diruari lotuta, dirua baita azkenean agintzen duena.

Gurasoak, ikasleak eta irakasleak talde ezberdinetan biltzen dira, kolektibo bakoitzarekin helburu jakinago batzuk lantzeko. Ikasleek 12 saio egiten dituzte eskola ordutan; helduek, berriz, 5 saio.

Gurasoekin...

Gurasoak jabetzen omen dira, jakina, pantailatik balioak transmititzen direla edo behar baino gehiago ikusten dela. Baina, Esther Torresen ustez, “bestetik, egia da helduok denbora gutxi dugula eta, beraz, espazio gutxi ditugula gai hauei buruz hausnartzeko. Kontzientzia izan behar dugu komunikabideak sartu behar ditugula hezkuntza barnean, izatez hala daude eta”.

Eztabaida gehientsuena sortzen duena zera omen da: ea programa batzuk ikustea debekatu behar litzaiekeen haurrei ala ez. Estherrek baietz uste du: “debekatzeak harritu egiten ditu gurasoak, baina ez eduki batzuk kalte-

garrizat ez dituztelako, baizik eta telebista hain aparailu arrunta bihurtu denez, batzuetan zure bizitzan sartzen delako zuk hautatzeko jarrerarik izan gabe, hausnartzeko jarrerarik izan gabe. Telebista piztea ohitura hutssez jada naturala da, eta naturala da piztuta egotea egun osoan. Oso errota dagoen ekingintza batzuei buruz hausnartzea zaila da”. Dena den, Estherrek ez du bere erabakia predikatzen: “familia bakoitzak jakin behar du zer den



Ikasleek ekoizpenak egiten dituzte telebistan eta publizitatean zer klabe eta estrategia erabiltzen dituzten uler dezaten, eta harrigarria da duten kritikotasuna. Klabe horietan kokatzeko aukera ematea da kontua.

bere haurrentzat onena. Baina saiatzen garena da gurasoak kontziente izan daitezen egiten ari diren hau-tuaz. Eta jakin dezatela batzuetan haurrekin ikusi behar dugula telebista (nahiz eta guk denbora gutxi izan) telebistan agertzen diren balioez eztabaidatzeko, pantailak berez duelako sinesgarritasun plus bat, zalantzan jarri behar dena". Baina gero eta zailagoa omen da hori, telebista jada ez omen delako familiarean ikusten. Egun, oso etxe gutxitan dago telebista bakarra, eta geroz eta modu indibidualizatuagoan ikusten da.

Irakasleekin...

Irakasleen kasuan, sentsibilizazioa ez da egiten telebista eta Interneten erabilerari buruz, jakintzat jotzen delako ikastetxe batean pantailen erabilera irakasleek gidatzen eta orientatzen dutela. Sentsibilizazioa egiten da irakasleek lanerako irudia gehiago erabil dezaten, ez dadin oraindik ere gehiago sakondu bi belaunaldien arteko amildegia. Alegia, neska-mutilen kultura ikusentzunezkoa den bitartean, eskolan ez dezagun jarraitu baliabide horiek lanerako erabili gabe.

Bestetik, aztertzen dute ea gaurko telebista programen egiturak, zappingak eta, batez ere, Internetek, zer ondorio dituzten diskurtsoaren antolaketan. Teoria baten arabera, narrazio klasikoaren haustura gertatzen ari da komunikabideen eraginez. *"Izatez, irakasleek esaten dute ikasleei geroz eta gehiago kostatzen zaiela kontakizun bat egitea sarrera batekin, garapenarekin eta amaiera batekin"*. Estherrek argi du kontakizun klasikoaren haustura hori



na-barmenena Interneten dela: hor jada ez dago ez korapilorik, ez amaierarik. *"Gaurko ikasleei ez diegu Interneten informazio kantitate bat hautatzen soilik irakatsi behar; horrez gain, orri jakin batean daudenean informazioa hierarkizatzen ikasi behar dute, zer den funtsa bilatzen, sintesia egiten"*.

Eskolekin...

Ikasleekin egiten den lana analisia eta ekoizpena da. Iragarki, programa edo irudi baten atzean dagoena ikustez gain, gero ikasleek ekoizpenak egiten dituzte, zer klabe eta estrategia erabiltzen diren uler dezaten. Ikastaro amaieran ikasleek bideo bat produzitu behar dute, komunikabideei buruz duten iritzia emanez. Egin dituzte lanak Beckami buruz, baina masen fenomeno bezala, edo mugikorrei buruz, ikusten dituzten programei buruz... Esther harrিতa dago ikasleek duten kritikotasunarekin: *"klabe horietan kokatzeko aukera ematea da kontua"*. Gurasoen taldean ere, hasieran bideo bat ekoizteko eskatzen zien, baina azkenean kendu egin behar izan zuen planetik; kameraren aurrean jartzea, seme-alabentzat plazera dena, gurasoentzat disgustua baitzen. Belaunaldien artean amildegia digitala dagoen seinale.

Dioten adina jende ote dagoen pantailaie engantxatuta galdetuta, hauxe Estherren erantzuna: *"ikastaroetan izan dudana jendea, orokorrean, estandar arruntaren barruan dago (egunean hiru orduz ikusten du telebista, gehi Interneten tokatzen dena). Baina, egia da helduetan pasa ditudan taldeetatik %90ean, ikastaro amaieran nigana zuzentzen den familia bat dagoela zera esanaz: 'arazo bat dago nire etxean' (haurra txateatzen ari delako egun osoan, edo dena delakoagatik)."*



G

G A I A

Telebista

etxean eta eskolan



Antxon Alfaro: *“Irakasleok telebistari botatzen diogu erru guztia, aurpegia garbitzeko”*



Antxon ALFARO

HEKO kolektiboko kidea eta Lezoko herri eskolako aholkularia

Lezoko herri eskolan 5 urteko hurrekin landu izan du ikus-entzunezkoen mundua Antxonrek. Tesia egiten ari da, aztertzeko gurasoek eta irakasleek telebistarekiko duten jarrerak zer eragin duten hurrek telebista ikusteko duten moduan. HEKO (Hezkuntza eta Komunikazioa) kolektiboko partaidea da, 1999an fundatu zutena.

Oinarrizko curriculumean LOGSEK toki bat ematen zien hedabideei, eta LOCEK ezabatu egin ditu. Zehaztu al dezakezu aldaketa hori zertan den?

Eskolan, ikus-entzunezkoei dago kienean, badira bi esparru landu behar liratekeenak: bata ikus-entzunezko lengoia da, eta bestea hedabidea bera. Gauza bat da ikus-entzunezko lengoiaak dituen ikurrak eta egiturak lantzea (planoak, koloreak, enkuadreak), eta beste bat da komunikabideak kritikoki aztertzea, gizartean duten eragina ikusiz.

Bada, ikus-entzunezko lengoia, LOCEn mantentzen da oraindik, hein batean, Plastika arloan. Baina hedabideak aztertzearena erabat desagertu da. Lehen LOGSEk asko azpimarratzen zuen komunikabideen eragina itzela dela eta landu egin behar zela eskolan (zehar lerro gisa planteatzen zuen, Lehen Hezkuntzan). LOCEk hori dena ezabatu, eta egiten duen aipu bakarra hauxe da: “hurrek komunikabideen eta garraibideen arteko aldea bereizten jakin behar dute”. Lotsagarria da.

Baina logikoa da LOCEk duen eske- marekin: edukiak, edukiak eta edukiak soilik ditu kontuan. Irakurketa eta idazketa da euren kezka nagusia, eta hori bai dela arlo guztietan aipatzen den zehar lerro bat (baita soinketan ere). LOGSEk ahozkoaz eta idatziaz gain, hizkuntza gehiago bazirela onartzen zuen; ikus-entzunezkoa, esaterako.

LOCEn soilik ahozko hizkuntza eta, batez ere, idatzia aipatzen da. Beraz, une honetan oinarria liburua da.

Irakasleen diskurtsoa hau izan ohi da: hurrek denbora gehiegi ematen dutela telebistaren aurrean, ez dutela irakurtzen, eta eskolan landutako balioak pikutara botatzen dituela telebistak. Zuretzat ere, telebistak kalte egiten al dio eskolari?

Uste dut hori errua besteri botatzea dela, aurpegia garbitu nahi dugula. Denbora gehiegi pasatzen dutela telebistaren aurrean? Bai. Baina ikerketek frogatzen dute, hurrek bestelako gauzak egiteko aukera izanez gero, orokorrean ez dutela telebista hautatzen. Telebista ikusteak ez du lehentasuna. Zein da arazoa? Eskaintza falta. Zenbait familian aukera gutxi daude: gurasoak etxetik kanpo lan egin behar dutelako, edo eskolaz kanpoko zerbitzuek kostu bat dutelako eta denek ezin dutelako hori ordaindu, edo ez direlako jabetzen hurrek alternatibak behar dituenik (telebista aurrean “ondo” dagoenez, pentsatzen dute “gustura” dagoela). Horri gehitu hirietan jolasteko toki publikoak urriak direla.

Hurrek ez dutela irakurtzen? Egia da. Baina futbolzalea den hurrek, ez du entrenamendua uzten telebista ikustea- gatik. Beraz, hurrari irakurtzea gustatuko balitz, ez luke utziko telebistagatik. Egian errua ez da telebistarena,

Eskolan landutako balioak gero telebistak hankaz gora jartzen dituela? Baina, benetan lantzen al ditugu esandako balio horiek?

agian gakoa da guk etxean eta eskolan zer erlazio afektibo sortzen dugun irakurketarekiko. Irakurtearen plazera ez da sortzen "biharko bi orri gehiago irakurri" esanda. Erlazio afektibo bat sortu behar da. Eta hain justu, erlazio afektibo hori oso erraz sortzen da telebistarekin, telebista emozioetara iristen delako. Eskoletan oraindik ez ditugu landu aspektu emozional, afektibo horiek guztiak.

Eskolan landutako balioak gero telebistak hankaz gora jartzen dituela? Egia da, telebistakoak kontra-balioak dira. Baina guk ere beste autokritika bat egin behar dugu: esaten ditugun balio horiek ea benetan lantzen ditugun eskolan. Nire zalantzak ditut. Eskolaren funtzioa gaur egun gehiago da edukiak transmititzea, hezitzea baino. Eskolak benetan paper hezitzailea beteko balu, komunikabideak landuko lituzke, ikasleen eguneroko bizitzaren parte direlako batetik, eta bestetik ikasleen interesetatik abiatu behar dugula esaten dugulako, teorikoki. Aldiz, telebistak ez du lekurik eskolan. Gizartetik oso urrun gaude.

Eskolan telebista nola landuko zenuke?

Telebistari eskolan ematen zaion erabilera bakarra bideoak jartzeko da: filmak beste hizkuntzatan ikusteko, edota dokumentalak ikusteko. Baina oraindik ez da erabiltzen medio bezala, ez dira baliatzen telebistak berak sortzen dituen programak.

Bi ikuspuntutatik landu behar genuke telebista. Batetik, ikus-entzunezko hizkuntza irakurtzen ikasteko (iruditan datorzkigun elementu, estrategia eta abarrak dekodifikatzen ikasi), eta gero irudietan produzitzen eta sortzen. Subjektu igorle-hartzailea da lortu behar duguna. Bestetik, komunikabide gisa aztertu eta baliatu behar lirerateki bai telebista, bai beste hedabideak ere. Ematen diren programak eta publizitatea aztertu, zer intentziorekin egiten diren, duten eragina... Baina, baita ere programak eta publizitatea erabili zehar-lerroak lantzeko: balioak, ahozkotasuna lantzeko... mila jolas daude.

Zuk Haur Hezkuntzan egin izan duzu lan 15 urtean. 5 urteko txikiekin zer lan egiten zenuen?

Txikiekin garrantzitsua da bereizten laguntzea, telebistan agertzen dena ez dela errealitatea jabeaztea. Media desmitifikatu behar da. Nola? Jolasen bidez errealitatea nola manipula daitekeen ikasiz: kamerari buelta eman eta haurrak lau-hankatan lurrean ibil daitezela. Gero, pantailan buruz-behera lau-hankatan ari direla ikusten dutenean, harrিতa gelditzen dira. Edo magia trukoak egin daitezke: jarri haurra kamera aurrean eta grabatu. Ondoren itzali kamera, haurra kendu paretetik, eta kamera mugitu gabe berriz grabatu. Pantailan bat-batean "desagertu" egin dela ikustea sekulakoa da eurentzat. Esperientziak badaude, eta materiala badago.

Tesia egiten ari zara, ikusteko gurasoen jarrerak zer eragin duen haurrak telebistarekiko duen jarreran. Gurasoen jarrerak zein aspektutan aztertu dituzu?

Nik 1.300 familiarekin egin dut lan, eta gurasoen jarrerak lau ataletan aztertu ditut: lehena da denboraren kontrola. Ea haurrekin negoziatzen duten zenbat denboraz ikusi telebista, zer garrantzia ikusten duten... Bigarren aspektua edukiei buruzkoa da: ea gurasoek edukiak kontrolatzen dituzten edo ez, zer jarrera dituzten... Hirugarren aspek-

tua telebistaren inguruan sortzen den elkarriketa da: benetan elkarrekin ikusten duten, era pasiboan ikusten den edo elkarriketa sortzen den... Eta laugarren puntuak gurasoek, ikusle gisa, zer jarrera duten da; zer ikusle eredu diren haurrentzat.

Telezaborraz keaxaten gara gaur egun. Baina kalitatea exijitzeko ez gara antolatzen...

Telebistak ez ditu legeak betetzen. "Mugarik gabeko telebista" izeneko zuzendaritza bat bada European, eta araututa dago, esaterako, publizitateak zenbat denbora hartu behar duen. Baina gero ez da araudia betetzen, eta ez dago erakunderik telebistei araudia beteazterako.

Espainiar estatuan, PSO Eren garaian dexente mugitu zuen gaia gobernuak. 1993an hitzarmen autoerregulaztaile bat sinatu zuten estatuko telebista guztiak (ETBk barne). Handik urte gutxira, jada, inork ez zuen hitza betetzen.

Eta horren guztiaren aurrean, kontsumitzaileok zer egiten dugu? Nahiko pasiboak gara. Azkenean gu ere egiten den zaborra bultzatzen ari gara, ez dugulako jarrera aktiboa hartzen telebistaren aurrean. Telebistak sekulako eragina du, baina sozialki ez dago mugimendurik horren aurrean zerbait egiteko. Azken batean, gobernuan daudenei ez zaie interesatzen neurriak hartzea gaurko telebista mota honen aurrean; beraz, gizartearen konpromiso politikoa oso garrantzitsua izango da.

Hego Amerikan diskurtso aktibo hori oso zabalduta dago gizartean. Hezkuntza eta komunikabideei buruzko gaian, korronea ez dator mundu anglosaxoietik, Hego Amerikatik baizik. Planteamendu kritiko batetik aztertzen dute arazoa, irrati komunitarioekin eta herri hedabideekin oso lotuta. Izan ere, han herritarren komunikazio behar hori badago, eta behar hori komunikabideek duten jarrerarekin lotzen dute. Oso garbi daukate medioen demokratizazio prozesua behar dela. Hemen, medioak demokratizatu behar direnik aipatu ere ez da egiten. Gizarteak ko-

munikabideen kontrolean parte hartu behar du, eta hemen gizarteak ez du kontrolatzen, partiduek kontrolatzen dute.

Gurasoen benetako jarrerak ikusita, kontraesana nabarmena da sozialki onartutako diskurtsoarekiko. Gurasoek esaten dute zerbait egin behar dela, baina gero askok aitortzen du oso zaila dela eta azkenean erosoagoa dela ezer ez egitea. Azken batean, haurra pantailaren aurrean isilik dago, eta segi dezala. Azkenean sekulako konpromisoa da heziketa, eta kontzienteki seme-alabekiko eguneroko dinamika aldatzea, eta heziketa prozesu horretan telebista ere sartzen da. Gaur egun konpromisoak betetzen saiatzen gara, baina neurri

G A I A

Telebista

etxean eta eskolan

G

bateraino. Gure heziketa ardurak besteren bizkaruzten baditugu, bai telebistaren bizkar, bai eskolaren bizkar, zerbait huts egiten ari da.

Zein dira tesia egiten ari zarela atera dituzun klaberik handienak?

Hurrek ez dutela telebista hauta-

tzen beste alternatibarik izanez gero. Eta haurra, kasu batzuetan, gurasoekin egotearen eseritzen da telebistaren aurrean. Familia estilo hori telebistaren aurrean egon ohi da, beraz, zein da gurasoekin egoteko eta hurbiltasun hori bilatzeko modu bakarra? Telebista aurrean esertzea, gurasoen ondoan.

Irakasleentzat bibliografia

- AGUADED GOMEZ, J.I. (1998): *Descubriendo la "caja mágica" (Guía didáctica: Enseñemos a ver la televisión y Cuaderno de clase: Aprendamos a ver la televisión)*, Grupo Comunicar, Huelva.
- ALBA, I.: *Detrás de la cámara. Manual para jóvenes guionistas*, Anaya, Madrid, 1999.
- ALONSO, M.; MATILLA, L.; VAZQUEZ, M.: *Teleniños públicos, teleniños privados*, De la Torre, Madrid, 1995.
- ALONSO, M.; MATILLA, L.: *Imágenes en acción. Análisis y práctica de la expresión audiovisual en la escuela activa*, Akal, Madrid, 1990.
- APARICI, R. (koord.): *La Revolución de los Medios Audiovisuales*, De la Torre, Madrid, 1993.
- FERRES I PRATS, J. (koord.): *Com veure la TV?: material didàctic per a infants i joves (I-Relats de ficció, II-Els Informatius, III-La Publicitat)*, CAC-Consell de l' Audiovisual de Catalunya, Bartzelona, 1998.
- FERRES I PRATS, J.: *Televisión subliminal. Socialización mediante comunicaciones inadvertidas*, Paidós, Bartzelona, 1996.
- FERRES I PRATS, J. y MARQUES GRAELLS, P. (koord.): *Comunicación educativa y nuevas tecnologías*, Praxis, Bartzelona, 1996..
- FERRES I PRATS, J.: *Televisión y educación*, Paidós, Bartzelona, 1994.
- FUENZALIDA, Valerio; HERMOSILLA, María Elena: *El televidente activo. Manual para la recepción activa de TV*, CPU, Santiago de Chile, 1991.
- GRAVIZ, A.; POZO, J.: *Niños, medios de comunicación y su conocimiento*, Herder, Bartzelona, 1994.
- GRUPO SPECTUS: *Aprende conmigo. La televisión en el centro educativo*, MEC-De La Torre, Madrid, 1996.
- MASTERMAN, L.: *La enseñanza de los medios de comunicación*, De la Torre, Madrid, 1993.
- TYNER, K.; LLOYD, D.: *Aprender con los medios de comunicación*, De la Torre, Madrid, 1996.

Interneten

Hezkuntza eta Komunikabideei buruzko web guneak (esperientziak, ikastaroak, artikulua...).

AulaMèdia - Educació en Comunicació
<http://www.aulamedia.org>

GRUPO COMUNICAR
<http://www.grupo-comunicar.com>

CENTRE DE RESSOURCES EN ÉDUCATION AUX MÉDIAS
<http://www.reseau-crem.qc.ca/>

RÉSEAU ÉDUCATION MÉDIAS
<http://www.education-medias.ca/>

PORTAL DE LA COMUNICACION (UAB-INCOM)
<http://www.portalcomunicacion.com>

AIRE Comunicación. Asociación de Educomunicadores
<http://www.airecomun.com>

CLEMI
<http://www.clemi.org>

Pantailak begiratzearen aldeko hezkuntza: lo egiteko ala ametsetarako?



Miren GABANTXO

Mondragon Unibertsitatean, HUHEZI Fakultateko
IKT departamentuko irakaslea

Askotan imajinatzen ditut oraingo haurrak guk txikitari egingen genuen moduan, ohera joan beharrean, itzartuta, pijama jantzita, ate izkinatik telebista ikusten. Aitaitaren eta amaren etxean lo egiten gelditzen ginenean errazagoa zen haiek engainatzea, ahizpak eta ni hiru aingerutxoak ginela uste baitzuten. Alderantziz, telebistako saiorki ilunak eta beldurgarriak ikusteko irrikitan geunden.

Txikitatik haurrei errealitatea ezkutatatu nahi diete nagusiek, gordina delako. Telebista haurrentzat errealitatea da, ikusezina, debekatuta dagoena. Otsailaren 5ean Janet Jackson kantariaren titia zela eta CBS Estatu Batuetako telebista kateko arduradunak gozoak zeuden, itzelezko eskandalua zelakotan irudi hori. Imajinatu eskolan haur txiki guztiak irribarrez, “eskerrak beti adi gaudela” pentsatzen. Hezitzaile ba-

ten funtzioak zein izan behar du? Telebistako errealitateari uko egin? Haurrak despitatu? Gelan betiko ariketekin jarraitu?

Hitzaren kultura nagusi Eskolan

Hitzaren kultura da -oraindik- Eskolan nagusi. Aldiz, etxean eta kalean, ikus-entzunezko kulturaz edo kultura ikonikoaz inguratuta bizi gara. Liburu bat irakurri baino, jendeak telebista ikusten du, Internetera konektatzen da, zinera doa eta bideojokoekin dabil. Zineak ehun urte bete ditu, telebistak berrogeita hamar. Eta eskolan egungo bizimoduari lotutako ohitura hauek ez dira kontuan hartzen, nahiz eta izugarriko eragina izan gu guztion imajinarioaren eraldaketan eta ikasleen soziazazioan. Irakurtzen eta idazten jakitea funtsezko erremintak direla onartuta dago, baina ikus-entzunezkoak zergatik ez dira funtsezkoak? Irudiaren gizar-tehonetan ahozko eta idatzizko adierazpena menperatzea, ikus-entzunezko adierazpena baino funtsezkoagoa da?

Orain teknologiak isildu egin du eztabaida hau. Eskoletan teknologiak sartu, ordenagailua sartu, Internet sartu eta dena egina dagoela dirudi. Makinekin maneiatzeko abileziak lantzearekin nahikoa dela ematen du. Ikus-entzunezko Hezkuntza behar dela esaten denean, Hizkuntza bat dela errebindikatzen da. Ikus-entzunezko industriari lan egin nahi dutenen formazio espezializatuaz eta profesionalizatuaz ari al gara? Ez, beste gauza bat da. Derrigorrezko hezkuntzaren urteetan, hiritar guztiak ikus-entzunezko kulturari loturiko formazioa jaso beharko lukete: bai ikasgai bezala eta bai ikaste-irakaste prozesuaren beste baliabide bat bezala.

Janet Jacksonen titiak:
inudirik bilatuena, Google-en.

Internet, telebista, zinea edo musikaren industria aztertzeak logikoa dirudi, pentsaeretan duten eragina ikusita. Janet Jacksonen titiak Amerikako Estatu Batuetan eta Europan sortu duen zentsura eztabaidaz pentsatu besterik ez dago. Telebistan irten eta biharamunean, Janet Jacksonen titia inudirik bilatuena izan zen Google bilatzailean.

Consell de L' Audiovisual de Kataluniak atera berri duen 2003.eko txostenaren arabera, gure haurrek telebista aurrean denbora gehiago ematen dute, eskolan baino. Kataluniako haurren datuak dira hauek: astero hemeretzi ordu ematen dituzte telebista ikusten eta beste hamaika ordu ordenagailuarekin eta bideokontsolarekin. Pantaila elektronikoen aurrean ikasten dutenean eta eskolan ikasten dutenean -ahozko hizkuntza eta idatzizko hizkuntza lantzen-, gauza bera egiten ari al dira?

Ikus-entzunezko hedabideek modu konkretu batean hezitzen dute. Askoren aurreiritziak telebistak markatzen ditu. Nola ez aztertu hiritarren bizi-tzetan hain eragin handia duen zerbait? Eskolak zein mundura begira prestatzen ditu ikasleak? Bestetik, bideojoko batek planteatzen duen arazo baten aurrean, haur batek edadetu batek baino arinago lortuko du irtenbidea. Horrek esan nahi du gizaki berrien pertzepzio gaitasunak eta prozesu mentalak aldatu egin direla. Ikaste-irakaste prozesuez arduratuta dagoen hezitzaile barentzat, bere mezuen kodeak aldatzea funtsezkoa da, oraingo ikasleen sensibilitatea eta ulermena beste bat dela kontuan hartuz.

IKTak edo Informatzeko eta Komunikatzeko Teknologiak areagotu dire-

nean, konturatu gabe, ikus-entzunezkoa hurbildu egin da eskolara, ikaste-irakaste prozesuaren baliabidetzat hartu delako leku askotan. Adibidez, Power Point softwarea gelan erabiltzean, ikasgaia beste modu batean pentsatu eta berrantolatu behar izan du irakasleak. Testu idatzien esangura eta irudien esangura oso ezberdina dela onartu behar izan du irakasleak eta horrek betiko aurkezpen linealak apurtu ditu.

HUHEZI Fakultatearen esperientzia

Unibertsitateko Irakaskuntzan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean IKTekin nik izan dudana esperientzia, zentzu honetan arrakastatsua da. Telebistan hamar urtean ibili eta gero, erreportajeak egiteko erabili nituen ikus-entzunezko narrazio kodeak, Power Pointeko lanetan eta ikasleekin ditudan aurrez aurreko saioretan probatu ditut. Irakasle Ikasketen Diplomaturan, urte oso bateko enborrezko ikasgaia da Hezkuntzari Aplikaturiko Teknologia Berriak izeneko ikasgaia. Egia da, kurtso hasieran, zaila egiten zaiela ikasleei ikasgai honi funtzionalitatea aurkitzea. Telebistako programazioa aztertzea, adibidez, ez zaie “akademikoa” iruditzen. Gauza arruntegia dirudi egunero bizimodua aztertzeak. Baina praktikak egitera doazenean ikastetxeetara, orduan bai, ondo baino hobeto ulertzen dute haurren pentsamoldeetan eta sozializazioan telebistak edo play-station-ak duen eragina.

Ikasle bereziak ere badaude Diplomatura honetan, lehendik beste Diplomatura edo Lizentziatura bat eginga dutenak. Gehienek lanean dihardutenez, IKT Departamentuko irakasleok saio bereziak egiten ditugu eurekin, kurtso amaierarako multimedia lan praktikoa egiteko gai izan daitezten.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate honetan, gainera, Informatzeko eta Komunikatzeko Teknologia Formazioan Masterra dago. Ikasgela birtual batean, on line, etxetik ikas daitezketen Sareak eta Internet edota Prentsa,

Irratia eta Telebistari loturiko kontzeptuak. Ikastetxe zuzendari askori interesatu zaie Master hau, eta irakasleak egunean jartzera bultzatu dituzte. Esperientzia aberatsa da bai eurentzat eta bai guretzat, Eskolan haurrekin bizi dituzten arazoak eztabaidatzeko aukera baitugu hileroko dugun aurrez aurreko saioan. Dimentsio teknikoa, espresiboa eta didaktikoa zaintzen dira irakasleei begira egiten dugun gradu-ondoko honetan. Blended learning egiten dugu, aurrez aurreko harremana eta on lineko harremana nahastuz.

Interneteko eremu birtualean ere, Teknologia Berri ikasgaia, Psikopedagogiako Lizentziaturan dago. Honek esan nahi du, Teknologien ikasgaia eta beste ikasgai batzuk editatzeko plataforma informatikoa sortu duela Fakultateak. Iazko kurtsoetik hona, pantailen bitartez, pantailen inguruko hausnarketa egiten dihardugu ikasleek eta nik. Ez da erraza, e-learning proiektuetarako bai irakasleek eta bai ikasleek gaitasun bereziak garatu behar baitituzte feedback edo pantailen bitarteko komunikazioak porrotik ez egiteko.

Javier Echeverria adituak dioenez, “Teleirakasle lanetan jardungo duten profesionalak ere prestatu behar dira, irakasle eskoletan ikasgai berriak sartuz eta egun lanean ari diren profesionalak birziklatzeko ikastaroak antolatuz. Horixe da lehentasun handieneko egintzetako bat, ingurune elektronikoa eta digitalerako irakaskuntza-material berriak moldatzearekin batera”

Irudiaren gardentasuna

Historikoki Ikasketa Planen ardura-dunak eta irakasleak –orokorrean-, literatur formazio sakoneko pertsonak

izan direnez, ikus-entzunezko hezkuntza baztertua egon da. Ikasketa Planen arduradunek eta irakasleek ez zuten formaziorik ikus-entzunezko adierazpenaren arloan. Eta atzean aurreiritzi hau zegoen: irudia neutroa dela, tgarrena dela, inolako formaziorik izan gabe berez ulertzen dela. Irudi bat irakurtzeko ez dela koderik behar. Ikustea eta begiratzea gauza bera direla. Aurreiritzi honek alienazioa dakar gizartera, ideologia transmititzeko modua errazten zaielako komunikabideei eta hartzaileek ez dutelako euren defentsa faltaren kontzientziarik.

Kodea ikasi gabe, beste ezagutza motak ezin dira eskuratu. Irudiak ikustearrekin ez da nahikoa informazioa diskriminatzen. Santos Zunzunegui Katedradunak ondo dionenez, irudia begiratzen jakin behar da, eta batez ere, irudia pentsatzen jakitea komeni zaigu. Badaude horretarako arrazoiak. Informatzeko eta Komunikatzeko Teknologiek eta batez ere, Internetek, liluratuta uzten gaituzte. Roni Aviram ikerlariak dioenez, Interneteko testuingurua hipertestuala eta multimedia denez, gure pentsatzeko eta ikasteko modua aldatzen doa. Gauzak era bisualagoan eta berehala jarri ditzakegu harremanetan eta imajinarioa eta sormena indartu dezake honek. Baina ezin dugu ahaztu, mendebaldean, azken 2.500 urteotan pentsamendu arrazionala garatzeko funtsezkoak izan diren egitura linealek, logikoek eta abstraktuek boterea gal dezaketela. Eta horietan oinarritu dira azken bi gizaldietan zientzia arloan eta teknologia arloan garatu diren asmakizunak. Beraz, erdi lo edo erdi ametsetan jarraitzeko asmotan ote gauden bakoitzak atera ditzala kontuak.

G A I A
Telebista
etxean eta eskolan


G

mariano fernandez enguita

Zientzia Politikoetan eta
Soziologian doktorea



Hezkuntza eskaintzeko edo
banatzeko bi modu baino ez ditugu
garatu: estatua eta merkatua



mariano fernandez enguita

E

Berriro diot,
estatuaz eta
merkatuaz aparte, ez
dago hezkuntza
zerbitzu publikoa
deitzen den hirugarren
banaketa modurik.
Dagoena da bi
egitura horiek
berrantolatzeke,
arautzeke, berritzeke,
kontrolatzeke,
gidatzeke,
zuzentzeke,
desbideratzeke edo
dena delakoa egiteko
modua, zerbitzu
publikoa deitzen
diogun horren antza
har dezan.

Ikastolen Elkarteak Par-
taidek antolatu zituen II.
Topaketetan parte hartze-
ko aitzakiaz baliatu da
Mariano Fernandez Enguita
Euskal Herrira etortzeko.
Zientzia Politikoetan eta
Soziologian lizentziatua
eta doktorea eta Zuzenbi-
dean lizentziatua da zara-
gozarra. 20 liburu inguru
idatzi ditu, hezkuntza mun-
duaren analisiari buruz
gehienak. Hainbat aldizkari
zientifikotako eta mono-
grafikotako kolaboratzaile
izan da eta liburu kolekti-
boetan, artikuluetan eta al-
dizkari profesionaletan ari-
tuda. *Educación y Sociedad*
eta *Política y Sociedad* al-
dizkariaren sortzaile izan
zen. Ikerketa ugarian par-
te hartu du, bai estatu es-
peniarrean eta bai atze-
rian.

1999an *Es p blica la escuela p blica?* artiku-
lua idatzi zuen, eta sorrara-
zi zituen erantzunak eta
erreakzioak ikusita, izen-
buru bereko liburua argita-
ratu zuen 2001ean. Libu-
ruaren hitzaurrean Jaime
Carbonell Cuadernos de
Pedagogía aldizkariko zu-
zendariak zera dio berari
buruz: Enguita proboka-
tzaile hutsa da; hori bai,
probokatzailerik sinesgarria,
egokia eta beharrezkoa bizi
ditugun garai hauetarako .

**Hezkuntza arloan publiko eta
pribatu banaketa tradizionalare-
kin egiten dugu topo. Nola ikus-
ten duzu dikotomia hori?**

Dikotomia hori engainagarria
dela deritzot. Jurista batek ez luke
arazorik izango bien arteko bereiz-
keta egiteko: batzuk jabetza publi-
koa dute eta besteek pribatua.

Niri ondorio maltzurak eta us-
tekabeak dituen dikotomia dela
iruditzen zait, eta hezkuntzari bu-
ruzko eztabaidari komeni ez zaiz-
kionak. Izan ere, publikoa zoraga-
ria dela uste izaten da, inpresio ona
ematen duelako eta publikoaren
esferari, kolektiboari, gobernuari,
hots, denon denari egiten dio erre-
ferentzia. Aldiz, pribatua norbera-
rena da, ez besteena, eta besteak
kanpoan uzten dituen.

Banaketa horretan okerrak eta
kaltegarriak diren bi uste sortzen
dira. Lehendabizi, ez dut esango
publikoa onena denik, baina "ez da
hain txarra" guztiontzako egiten
duelako lana eta guztiokin ardura-
tzen delako. Bigarrenik, pribatuaz
hitz egitean, badirudi aipatu ezin
dugu zerbaitetaz ari garela. Eskola
pribatua dagoela onartzen den
unetik, bere jabeak ateak nahi di-
tuenean itxi eta ireki ditzakeela
pentsatzen dugu.

Beste modu batera azalduko
dut. Memento honetan oso tipikoa
den eztabaida bat dago. Behar be-
reziak dituzten haurrak edo etorki-





nak
nora

doazen galde-
tzen denean, diru publikoz sosten-
gatutako zentro guztietara joan be-
harko luketela esaten da. Horrekin
zer adierazten da? Bada, diru publi-
koz sostengatu gabeko zentroei e-
zin diegula ezer esan, eskusiboki
pribatuak eta beraienak direlako e-
ta ezin zaielako ezer eskatu.

Horregatik, dikotomia horrek
gizarteari eta erakunde demokrati-
koei oztopatu egiten die hezkun-
tzan osotasunez eta eraginkortasu-
nez jokatzeari.

Nola gaindi daiteke erabilera oker hori?

Zaila da terminologia aldatzea,
oso sartuta baitago, baina ni saia-
tzen naiz eskola publiko-pribatuaz
gutxiago hitz egiten eta eskola esta-
tala-kontzertatua-pribatua gehia-
go erabiltzen, edota are gehiago,
estatala-kontzertatua-baimendua.
Zeren, hezkuntza pribatua zentzu
hertsian ez da existitzen. Familia
bakoitzaren barruan bai, hezkun-
tza pribatua dago, gurasoek nahi
dutena edo ahal dutena egiten du-
telako. Beste ikasketa zentro bat-
zuetan bakoitzak nahi duena soilik
hartzen du, eta eskaintzen duenak
ere nahi duena eskaintzen du. Hori
gertatzen da zeramika tailer batean,
hizkuntza akademia libre batean,
arriskuko gidaritza eskola batean
eta antzekoetan. Baina hori ez da
gertatzen derrigortasuna hezkun-
tza hartzera joaten garen lekuetan,
legeak araututa dauden hainbat
gauza bete behar baitituzte: progra-
mak, matrikulazioa, ordutegia,
ikasgaien antolaketa eta abar.

Azaleko banaketa hori alboratuta, zer ikusten duzu egungo hez- kuntza sistemaren erraietan?

Milioika pertsona bizi diren gi-
zartean kokatuta, hezkuntza es-
kaintzeko bi modu baino ez ditut
ikusten. Hau da, bi banaketa modu
soilik eraikitzeko gai izan gara, eta
ez dago besterik. Bi banaketa mo-
du handi horiek estatuak eta merka-
tua dira.

Estatuaren barruan aldaerak
egon litezke, hots, estatuak modu
askotara bana dezake hezkuntza,
baina berak jarraitzen du banatzaile-
lea izaten. Pertsonak estatuak es-
kaintzen duen hori ordaindu gabe
jasotzen dute. Horrek ez du esan
nahi inork ordaintzen ez duenik,
doako hezkuntzarik ez baita existi-
tzen, doako janaririk existitzen ez
den bezala. Jasotzen duten bat-
zuentzat doakoa izango da, baina
norbaitek ordaindu beharko du:
fondo publikoekin, zergekin edo
dena delakoarekin.

Beste banatzaile handia merka-
tua da, erlazio sozial bezala ulertua.
Bertan, norberak joan eta nahi due-
na erosten du eskaintzen dioten
hartatik, eta alderantziz. Beraz, ba-
naketa horretaz jabetuta, ikusi be-
har dena da ea banaketa moduek
hezkuntza eskubidea bermatzen
duten edo ez, eta zein baldintzatan.

Azken finean, egitura bi dauz-
kagu eta biak dira egokiak zentzu
batean, bata berdintzailea delako
eta bestea librea. Baina biek dituzte
desabantailak; bata burokratikoak
da eta bestea ez da berdintzailea,
itsua da pertsonen arteko desber-
dintasunen aurrean.

Estatuaren abantaila nagusia berdintzailea izatea al da?

Bai, hori da bere ezaugarri na-
gusia, oso berdintzailea da. “Kafea
denontzat” esaten duenean, mun-
du guztiak bere kafea jasotzen du.
Mundu guztiarentzat Lehen Hez-
kuntza, bada mundu guztiarentzat
Lehen Hezkuntza. Mundu guzti-



rentzat Bigarren Hezkuntza, bada
mundu guztiarentzat Bigarren
Hezkuntza. Denek jasotzen dute
zerbitzu hori eta hori abantaila han-
dia da.

Zer desabantaila ikusten diz- kiozu?

Burokratikoak da. Nahi duena
esan dezake eta inori ez dio galde-
tzen. “Denak Geografia ikastera”
edo “Denek DBH egingo dute” esa-
ten du, eta denek hori egin behar
dute. Inork ez dauka hitzik horren
aurrean. Erabakitzekeo prozesua
bat edo bestea izan liteke, baina az-
kenean, elementu inposatzaile bat
duen eskaintza burokratiko hori ja-
soten dute denek. Seguraski ez da
ez bata ez besta izango, ez da izan-
go ez inork nahi ez duena, eta ezta
denek nahi dutena ere, tarteko gau-
za bat baizik.

Nolakoa da merkatuaren fun- tzionamendua?

Modu askotara funtziona deza-
ke, baina oinarrizko ezaugarria ze-
ra da: norberak aukeratzeko duela.
Zerbait ez baduzu nahi, ez duzu
ordaintzen. Eta nahi baduzu eta
ordain baldin badezakezu, bereha-

Ekimen
sozialeko eskolak
irabazi asmorik
gabekoak direnez,
ez dira
merkatuaren
kriterioetan
sartzen. Edo nola
ere,
interesgarriagoa
inuditzen zait
zentro horiek
funtzionaritzaren
zurruntasunari
lotu gabe
egotea

la lortuko duzu, edo zer gauza delarik ere, baldin eta kode penalak zigortua ez baldin badago. Arazoa da pertsona guztiek ez dutela horretarako bitarteko nahikorik.

Zer da zuretzat zerbitzu publikoa?

Estatuaren eta merkatuaren eskaintza antolatzekeko modu bat, guztion hezkuntzarako eskubidea aseptua izan dadin.

Nola gara daiteke zerbitzu publikoa?

Zerbitzu publikoa egitura bi horietatik abiatuta jarri behar da. Zeren, behin eta berriz diot, ez dago hezkuntza zerbitzu publikoa deitzen den hirugarren banaketa modurik. Dagoena da bi egitura horiek (estatua eta merkatua) berrantolatzeke, arautzeke, berritzeke, kontrolatzeko, gidatzeko, zuzentzeko, desbideratzeko edo dena delakoa egiteke modua, zerbitzu publikoa deitzen diogun horren antza hardezan. Orduan, kontua da nola jarri zerbitzu publiko bat martxan egitura bi horietatik abiatuta. Hezkuntza sistema edo irakaskuntza osotasun bezala hartu behar da, eta hortik abiatuta zerbitzu publiko hori nola antolatu eztabaidatu behar da.

Gure kasuan, errealitatean bisare dauzkagu (edo hiru, nahi du-

zuen bezala), eta kontua da horien bitartez bermatu behar dugula denontzako zerbitzu publikoa.

Horrek zer aldaketa ekarriko lituzke sare publikoan eta pribatuan?

Alde batetik, merkatua arautzeke baldintzak eztabaidatu behar dira, eta bestetik estatuaren erantzukizunak.

Zer esan nahi du merkatua arautzeak?

Eskaintza arautzea, eskaerari diru laguntza ematea eta parte-hartzea artikulatzea.

Hezkuntza unibertsalitzatu ahal, kostuak igo egiten dira, eta gero eta handiagoak dira. Prozesua zailduz joaten da eta ahalegin hori den artean banatu behar da, ez diru publiko sostengatutako artean soilik, baizik eta denen artean. Ahalegin solidarioa banatu egin behar da. Nire iritziz, horrek ez luke izan beharko finantziarioa lortzeko baldintza, baizik eta baimena lortzeko baldintza. Zentro guztiei ikasleak onar ditzaten eskatu behar zaie, eta ez hori soilik, baita ikasleak mantentzea eta beren emaitzen arabera ebaluatzea ere. Noski, horretarako behar dituzten baliabideak eman behar zaizkie zentroei. Ezin da izan zentro publiko batek hau, hori edo




bestea jasotzea ez dakit nolako ezaugarriak dituen ikasle bat duen bakoitzeko, eta eskola kontzertuetek beren kabuz bilatu beharra izatea.

Bigarrenik, eskaerari diruz lagundu behar zaio, noski, eta horretarako aukera bat baino gehiago dago: prezioen arautzea, diru laguntzak, kontzertuak, txekeak, errentaren gaineko zerga negatiboak eta konpentsazio aktiboa.

Hirugarrenik, parte-hartzea bultzatu behar da. Haurrak eskolaz aldatzea egunkariz, okindegiz edo arrandegiz aldatzea baino konplexuagoa da. Horregatik, prozesua arautu behar da eta horretarako parte-hartzea oso garrantzitsu da, bai profesionalena eta bai komunitatearena. Kontuan hartu behar dira, ez baitira objektuak, subjektuak baizik, eta hitza eman behar zaie.

Estatuaren erantzukizunen kasuan, zer da eztabaidatu behar dena?

Irakaskuntza estatalean erantzukizun mekanismoak sartu behar direla esan nahi dut. Eta erantzukizuna hitz ingelesaren zentzuan ulertzen dut. Hau da, beraiek bi hitz erabiltzen dituzte: responsibility eta responsiveness. Lehenengoak esan nahi du bakoitzak bere ekin-tzengatik ordaintzen duela; ondo eginez gero, saritu egiten da, eta gaizki eginez gero, zigortu. Ia beste edozein giza arlotan bezala, pizgarri positiboaren eta negatiboaren sistema bat behar da. Eta responsiveness-ek publikoari entzun behar zaiola esan nahi du; hau da, ezin dugu "gu profesionalak gara" esan eta korporatibismoz jokatu. Ezin da egin "dena herriarentzat baina herrikerik gabe", "dena ikasleentzat baina guk esaten dugun bezala". Horri despotismo ilustratua deitzen zaio, eta hezkuntzan "ilustrazio despotikoa" dei geniezaioke; gauza bera, baina pixka bat espezializatuagoa.



Zein mekanismo proposatzen dituzu estatuaren erantzukizuna gehitzeko?

Batetik parte-hartzea egongo litzateke. Boterearen eta profesionalen ahalmena orekatzeko modu bat da eta guztien parte-hartzea bultzatu behar da: gurasoena, ikasleena, komunitatearena...

Bigarrenik, zerbitzuaren ebaluazioa; bai zentroena eta bai profesionalena. Mekanismoak sortu behar dira jendea bere lanaren erantzule izan dadin. Gauzak publikoak direnean pizgarriak behar dira funtziona dezaten. Zentroek eta bertan lan egiten dutenek lan segurua daukate eta horren ondorioak ikusita pizgarriak eman behar dira. Dena dela, hori ez da irakaskuntza publikoaren arazoa, publiko osoarena baizik, eta bai hemen eta bai Berlinen. Errusiar Iraultza ikasten badugu, arazoa hori zela konturatuko gara: nola eta zer egin jendeak lan egin dezan. Paradoxikoki kapitalismoak ez dauka horrelako arazorik. Bere nagusia arrazoi justifikatuengatik gorroto duen langileak badaki enpresa ixten bada lanik gabe geratuko dela. Estatu-ko langileen kasuan ez da horrelakorik gertatzen.

Horregatik, mekanismoak sortu behar dira jendea bere lanaren erantzule izan dadin. Badaude zenbait mekanismo, baina kasu batzuetan ez dira nahikoak.

Horietako bat morala da. Milaka langile eta funtzionariok ondo egiten dute euren lana hala egin behar dutela uste dutelako. Esku ukiezina izango litzateke; jendea gauzak norabide batera edo bestera egitera bultzatzen duen kultura da.

Beste mekanismo bat kontrola da: nagusia, ikuskaria, agentzia publikoak... burdinezko eskua. Iraskuntzan ikuskaritza izango litzateke, nahiz eta gaur egungoak ikuskarriak baino gehiago autoritateen aholkulari juridikoak eta teknikoak izan.

Eta beste bat esku ikustezina da, hots, merkatua. Okin batek ogi txarra egiten badu, ez du salduko eta itxi egin beharko du. Eskolak ez dira okindegiak, baina ez litzateke txarra izango eskola batek gaizki funtzionatzen badu, alde egiteko aukera izatea.

Ekimen sozialeko eskolei lekurik ikusten al diezu sistema honetan?

Uste dut hezkuntza sistemak gehiengo handi batean publiko estatala izaten jarraituko duela eta beste batean pribatu enpresariala. Dena dela, ekimen sozialeko sektore handi bat badago, eta aldi berean, uste dut hor esperimentera daitezkeela estatu-merkatu nahasketa horren abantaila batzuk eta kudeaketa forma batzuren abantailak.

mariano fernandez enguita

E

Irakasleen sektorea oso anitza dela onartzen hasi behar dugu: batzuk gustatzen zaielako daude, eta beste batzuk txisteak dioten hiru edo lau arrazoiengatik: uztailea, abuztua, iraila eta... bat ahaztu zaizula uste dut, abendua. Nire ustez, pizgarrien sistema jarri beharko litzateke lan ona saritzeko eta lan txarra zigortzeko

Zer abantaila ikusten dizkiezu ekimen sozialeko eskolei?

Merkatuari begira, irabazi asmorik gabekoak direnez, ez dira merkatuaren kriterioetan sartzen. Hala ere, merkatuaren kriterioen arabera molda dezakete eskaintza, eta hirugarren bide bat marka dezakete.

Edonola ere, interesgarriagoa iruditzen zait zentro horiek funtzionaritzaren zurruntasunari lotu gabe egotea. Zeren zurrutasun horrek funtzionarioa mugiezina izatea baitakar; edo beste hitz batzuetan esanda, arduragabekeria.

Dena eta ezer ez artean, tarteko formularen bat bilatu beharko litzateke: irakasleen independentzia eta askatasuna babestuko dituena, baina aldi berean, ganorabako bihurtuko ez duena. Zentzu horretan, ekimen sozialeko zentroek, eta bereziki kooperatibek, eta baita ordena erlijiosoek ere, kontrol klima eta babes klima sortzen dute. Langileak lotuago eta babestuago daude, ez dira ordenako funtzionarioak, baina ezta langile ezegonkorrak ere. Bestalde, batez ere gurasoen edo gurasoen eta irakasleen kooperatibak direnean, eskola horiek beste abantaila bat dute: ingurune-ari irekitzen direla derrigor.

Nola irudikatzen duzu eskola eredia?

Gaur egun ez da bideragarria denentzako eskola berdina, ikasle asko eskolatzen baitira. Orduan, kalitatezko hezkuntza lortzeak, emaitza egokiak lortzeak, batez beste gutxieneko gauzak lortzeak... asko dibertsifikatzea eskatzen du. Zeren ikasleak oso desberdinak baitira zentro batetik bestera, edo zentro berean bost urte beranduago.

Zentro bakoitzak bere hezkuntza erabakitzea eskatzen du horrek. Ez dut esan nahi autoritate estataleko, udaleko edo dela delakoek abdikatu egin behar dutenik, ezta



pen-
tsatu ere.

Baina planifikazio papera bete beharrean, ekintzaren aldekoa bete beharko lukete. Ikastetxe bakoitzak inizatiba hartzeko baldintzak sortu behar dituzte, eta aldi berean, ekimen horien emaitzak exijitu. Beste modu batera esanda, zentroek modu malguan jokatu ahal izatea. Horrek egoerak eskatzen duen baldintzetan egotea esan nahi du.

Zein dira baldintza horiek?

Hiru aipatuko nituzke.

Hasteko, irakasle bakoitzak bere zentroarekiko konpromisoa edukitzea. Irakasle bat ezin da bere hurrez, bere taldeaz, bere gelaz, bere ikasgaiaz soilik arduratu, baizik eta bere ikastetxean gertatzen denarekin lotuta sentitu behar du. Aldi berean, berak egiten duen lanarekiko ardura orokor bat bada goela onartu behar du. Autonomia eta lan banaketa errespetatu behar dira, baina erantzukizun hori onartuta.

Bigarrenik, eskolaren antolaketan bitarteko bat dela ulertu behar da, eta ez helburua. Bigauza horiek nahastea arazo zaharra da. Hasieran normala da sistema razional bat bezala diseinatzea, ordutegia, arauak eta abar jarritz. Seguraski diseinu horiek oso onak izango dira, baina ez mundu aldakor eta zalantza honetan. Egoera horretan, antolaketak malgua izan behar du, ez baita helburua, bitartekoa baizik.

Eta hirugarrenik, eskolek irekiak izan behar dute. Zergatik? Gaur egungo ezagutzaren, globalizazioaren eta horren guztiaren gizarteak zera esan nahi duelako: ez dela unibertsitatean pentsatzen eta

gero ezertxo ere ez dakien komunitateari eskolan erakutsi. Egun, enpresetan, elkarteetan, talde informaletan eta toki guztietan eraberritzen dira gizakiak eta ez da irakaslea informazioa eta jakituria duen bakarra. Haur askok ni baino hobeto hitz egiten dute ingelesez, nik baino hobeto erabiltzen dute informatika, nik bizitza osoan bidaiatuko dudana baino gehiago bidaiatu dute... Eta gurasoak ez dira haur ezjakinen guraso ezjakinak; kultura eta hezkuntza maila altuagoa dute. Ondorioz, eskolaren ingurunea ezin da hartu eskolatu behar diren basatiz betetako lekutzat. Behar gaituen leku bat bezala soilik ez da ikusi behar, baizik eta aukerak ematen dizkigun leku bat bezala. Hori da eskola irekia, edo beste modu batera esanda, dena herriarentzat baina herriarekin.

Eskola publikoaren aldaketaren arrazoietakoa hiru hauek zirela idatzi zenuen artikuluko batean: bokazioa, feminizazioa eta sindikatuen arduragabekeria. Ez al da bixia horiek izatea, hots, garapen soziala bera, eskola publikoaren hondatzea ekarri dutenak?

Denok dakigu eskola publikoaren barruan arazo batzuk daudela, baina badirudi ezin dela horietaz hitz egin. Nik fenomenologia tipiko hori agertarazi nahi nuen eta kausa batzuk aipatu nituen. Esan nuen guztia berresten dut, baina gauza batzuk zehaztuko ditut.

Bokazio falta baino gehiago desprofesionalizazioa esango nuke orain. Irakasleen sektorea oso anitza dela onartzen hasi behar dugu: batzuk gustatzen zaielako daude, eta beste batzuk txisteak dioten hiru edo lau arrazoiengatik: "uztaila, abuztua, iraila eta... bat ahaztu zaizula uste dut, abendua". Nire ustez, pizgarrien sistema jarri beharko litzateke lan ona saritzeko eta lan txarra zigortzeko.

Feminizazioaren kasuan, egia

da, baina argudioa ez zen feminizazioa bere horretan. Eskola publikoaren egoera txarra ez da txarra emakume asko daudelako, baizik eta emakume horiek orokorrean ezin izan dutela eskolako lana eta etxe-ko lana ongi banatu, eta horrek eragina du eskolan. Zoritxarrez, etxe-ko lanen %80-90 egin behar dutenez, lanordu murriztua eskatzen dute. Hain feminizatua ez dagoen beste edozein sektoretan ez da ohikoa lanaldi murriztua eskatzea.

Eta hirugarrenik, sindikatuen argudioa ere mantentzen dut. Lan-tegietako langileen interesen defentsa eta autodefentsa egiteko modua ezin dira mundu profesional batera pasa. Sektore profesional batean "denontzako kafeak" ez duela funtzionatzen iruditzen zait. Gutxieneko bezala bai, baina gero erantzukizun indibiduala eta kolektiboa garrantzitsuak dira, eta zuntz horrek puskatzen du ekintza sindikala. Hau da, praktika sindikal hori aurrera eramaten duen jendea da berritzaileena eskoletan, baina hauteskunde sindikalak iristen direnean, ea nor ateratzen den lanaldi jarraituaren aurka! Orduan, dena galtzen da. Egoera aldatu egin da, eta sindikatuen antolaketa ere aldatu egin behar du.

Edonola ere, aipatu hiru faktore horiei beste bi gehituko nizkieke orain: gizarte zibilaren eta demokraziaren ahuldadea. Demokrazia ahula den lekuetan eta gizarte zibila ahula den lekuetan gertatzen zaio hori eskola publikoari.

Eskola publikoan soilik gertatzen al da hori? Kontzertatuetan ez?


Nik uste dut kontzertatuek beste arazo batzuk dituztela, agian okerragoak. Dena dela, arazo hori ere badute. Kontzertatuetako irakasleek publikoko baldintzak lortuko balituzte, eta hori da helburua, gauza bera gertatuko litzateke. Nire irudikoz, publikoan ez dauden bi gauza pisutsu daude pribatu-

tuan. Bata ikasleak mantendu egin behar direla. Publikoan, ordea, profesional txar batentzat, gauzarik onena ikasleak galtzea da. Eta bigarrena, eskolarekiko harremana zabalagoa dela, ez instrumental hutsa; batez ere proiektu baten sinesen dutelako edo erlijio ordena konkretu batekoak direlako.

Niretzat, eskola pribatuaren arazoa da erdiak konfesionalak direla. Nik uste dut gaur egun ez litzatekeela eskola konfesionalik egon behar. Eskola errepublikaren tresna dela uste dut, bere zentzurik zabalenean: gizartearen antolaketa politikoaren tresna da. Gainontzekoa pribatua da.

Argi ikusten dut laster gatazka handi bat egongo dela. Legea hartuta, denek eskubide berak dituzte: katolikoek eskola katolikoak edukitzeko eta erlijio katolikoa irakasteko eskubidea baldin badute, beste edozein erlijio ere bai.

Hori jende gutxiaren arteko kontua baldin bada, ez da arazorik sortzen. Baina hemendik gutxira arazo bihurtuko da zehaztea zein den hiritarren eremua, zein talde erlijiosoaren eremua, zein kulturantzatasunarena zentzu zabalean ulertuta -hots, talde bat erreproduzitzeko ahalegina instituzio publikoetaz eta abar baliatuz... Niretzat hori da orain arazoa.





Mikel Erramouspe

Kantuaren herri kultura bizia

Baigorriko Biletxea ikastetxe-ko zuzendaria eta Gizarte zein Euskara irakaslea da Mikel. Baina ororen gaineratik, musika zaletasunaren kutsatzailerik da, 11-15 urte bitarteko 90 ikasle dituen ikastetxe honetan.

Kantuaren sehaska da Baigorriko harana. Mikel miesten du herriaren kultura bizi hori. Eliteko hinu abeslari izanagatik, gero herri osoak ez baleki kantatzen, pentsa zer miseria litzatekeen! Kulturak bere elitea eta bere herria behar dituela sinesten du, benetan kultura indartsua izan da oin.

Haurrek, ordea, ez zuten deus jakin nahi kantuz, eta gutxiago euskaraz abesteaz, Mikel Baigorriko ikastetxera iritsi zenean. Musika irakaslearekin elkartu eta hala sortu zuten Iguzki Lore proiektua, zaletasuna pizteko. Harrezkero 15 urte joan dira, hamaika kantaldi eta 3 disko.

Izatez, ez zara musika irakaslea; ikastetxeko zuzendari eta gizarte zein euskara irakasle zara. Baina musika zaletasuna kutsatzen duena zara.

Gazte-gaztetatik beti eraman dut gitarra bat aldean. Nire kasa ikasia naiz. Irakasle bat badut, biziki ona; haren izena "Errabia" da. 17 urte nituela,



lagun baten zentzuan, zenbait tekina egin, eta Gipuzkoan kantatua naiz, oraindik Francoren garaia zela. Beste giro bat zen hura. Zinez kantaldiak ez, mitinak ziren haiek!

Soldaduska egiteko garaia heldu zitzaidanean, bi urtez zerbitzu zibila egitea hautatu nuen. Erdialdeko Afrikarat joatea erabaki nuen, irakasle gisa. Iritsi eta kantuez arduratzeko eskatu zidaten. Nik euskaldun kantuak irakasten nizkien, eta niri eurenak irakasten zizkidaten. Musika talde bat ere muntatu nuen, hemendik bidali zizkidaten gitarrekin.

Zeure sorlekuan ere, kantuarekiko zaletasuna izugarria da...

Baigorriko haran honetan, hasi Urepeletik eta Bidarrairaino, baduzu kantuaren tradizio bat, oraindik galdu ez dena. Herri guztietan badira kantariak, kalitate handikoak direnak, eta emanaldiak eskaintzen dituztenak; herri mailako kantariak dira, baina horien artean Erramun Martikorena ere topa dezakezu. Kantariez gain, zaletasun

herrikoa ere bizirik dago (esaterako, afalosteetan kantatzeko ohitura badago). Zinez bada kantuarekiko maitasun bat.

Aldiz, Baigorriko ikastetxean irakasle hasi zenez, haurrek ez zuten kantuz deus jakin nahi...

1982an sartu nintzen irakasle. Garai hartan haurrek ez zuten kantatu nahi, eta oraino gutiago euskaraz. Euskaraz kantatzea zaharren gauza zen eurentzat, ez zen moderno. Ez zuten kantuz deus jakin nahi.

Musika irakaslearekin elkartu, eta bien artean sortu zenuten "Iguzki Lore" proiektua, 1988an. Azal ezazu.

Helburua da hemengo haurrengan kantuaren gustua piztea, gogoa piztea, eta kantatzen jakitea. Baina kantatzen jakitea diodanean, ez da hainbeste koruan kantatzen jakitea (nahiz eta kantuak 3 ahotsetan ere lantzen ditugun); gehiago da girotze maila batean lantzea, kantu batzuk gogoz (buruz) jakiteko, eta ondare bat zurekin izateko.

Astean ordu eta erdi eskaintzen dugu kantuari. Eskola ordutan izaten da, eta nahi duten haurrekin egiten dugu. 15 urte dira proiektuarekin jarraitzen dugula, eta aurtun 90 haurretatik 52-k hautatu du kantu; gehiengoak, beraz. Guk ez dugu haurren hautaketarik egiten, ahotsaren arabera taldean onartuz ala ez. Haurrak nahi izatea, hori da baldintza bakarra taldean sartzeko. Ikasgela bakoitza ahots bat izaten da; gelan ahots hori lantzen dute, eta ondoren tal-

de osoa hartu eta ahots denak batzeko lana egiten dute. Urtero aldatzen ditugu ikasgelak ahotsez; hartara, haur denek probatzen dituzte ahots guztiak.

Hamabost urte baditu proiektuak. Zer emaitza ekarri ditu?

Lehen kantatzea, eta batez ere euskaraz kantatzea, eurentzat zaharren gauza bazen, orain hobeki ikusten dute. Konturatzen baitira balio bat baduela, publikoak maite duela, eta herriko gazteek ere (18-20 urtekoek) kantatu egiten dutela. Lehen "Igzuki Loren" egondakoek, ikastetxea utzita ere, egun segitzen dute kantuz. Batzuek taula gainean, beste batzuek lagunartean, afalosteetan. Ikastetxean hartutako ohitura hori euren lagun taldera eramanez dute. Biziki garrantzitsua da hori.

Haurrei hitzak gogoz (buruz) ikasazten dizkiezue. Zer garrantzia du buruz ikasteak?

Bi arrazoiengatik ikasazten dizkiegu hitzak gogoz: batetik, kontzertuetan askoz ere hobe delako gogoz kantatzea, paperaren aitzinean egon partez. Baina baita ere, kantu hori egon dadin gerorako ere norberaren barruan.

Kultura batek nahi baditu oinarri sendoak jarri, nahitaez, partaideen memorian egon behar du bizirik. Nire aitak badaki gogoz ez dakit zenbat bertso eta zenbat abesti. Kultura izugarria zuten lehen buruan. Pedagogian, azken urteotan memorizatzea baztertu egin dugu, eta astakeria ikaragarriak egin

ditugu hor. Memoriaz ikasi beharrean, ulertu egin behar dela izan da argudioa. Baina memorizazioa eta ulertzea ez dira kontraesanak, elkarri laguntzen diote. Gaur memorizatzen baduzu zer bait, uzten duzu posibilitatea, zenbait denboraren buruan hartaz akordatzeko eta errateko: "A! Orain hartu diot zentzual!". Hori kantuekin asko gertatzen da: umetan ikasitako kantu askoren esanahia, heldutan ulertzen dugu. Ulermena da momentuan, oraintxe balioko dizun gauza bat, eta memorizazioa da gerora baliatuko duzun asmoarekin atxikitzea.

Kantaldiak ere egiten dituzue. Zer nolakoak izaten dira?

Kantaldi ugari egiten ditugu: inguruko herrietatik deitzen digute, gurasoei ere emanaldiak eskaintzen dizkiegu, eta trukeak ere egiten ditugu beste ikastetxeekin. Adibidez, abenduan kantaldia eduki genuen herrian, diskoaren aurkezteko. Heldu den otsailean badugu kantaldi bat Uztaritzen, maiatzean Biarnon, eta ekainean, berriz, Landetan. Apirilean, diskoaren irabaziekin bidaia bat egin ohi dugu Futuroscopera, haurren talde giroa indartzeko eta egindako lanaz jabe daitezen.

Zer garrantzi du ikasle taldea batera eta bestera mugitzeak, kantaldiak eskainiz?

Batetik, beste jenderen aitzinean kantatzeak motibazioa sortzen du lanerako. Bigarrenik, kantaldietan beste talde, beste musika batzuk entzuten dituz-

te, eta horrek ireki egiten zaitu. Bestalde, adin horretan pentsa ezazu talde giro horrek zer erran nahi duen, zer oroitzapenak atxikitzen dituzten hala ibiliz!

Kultura aldetik, ez dut uste adin horretan egindakoaz kontzienteki jabetzen direnik. Gauzak bizi dituzte, esperientziak hartzen dituzte. Baina gerora konturatzen dira, ondotik arrazionalizatzen dute. Baditutikasle batzuk, denboraz irakasle bilakatu direnak, eta askotan etortzen zaizkit erraten: "orain ulertzen dut zergatik egiten genuen hau!".

Euskara aldetik ere, kantuak badu bere funtzioa. Hemen euskara ez da osasun onean. Helduen artean tira, baina gazteen artean ez. Herriko kantaldietan, nik gitarraz laguntzen ditut kantari helduak, binaka edo hiruak abesten dutenak. Horietako batzuk lehen "Igzuki Loren" ibiliak dira. Badira berriki 4 gazte, 17 urte dituztenak, zoragarri kantatzen dutenak, eta kantatzeke gogoia badutenak. Horiek oso elementu garrantzitsuak dira hemengo gazteen artera euskal giroa hedatzeko. Kantuak ez du salbatuko euskara, baina bere parteak ekartzen ahal du. Kontzientzia bat ere ematen du, eta kultur nortasun baten helarazteko ere garrantzitsua da kantua. Kantuaren bidez, hemengoak ez direnekin integrazioa lana egiten ahal duzu.

"Igzuki Lorek" 3 disko ere atera ditu. "Goiz Alba", azken diskoa, abenduan aurkeztu zenuten. Zer kantu bildu dituzue?

Hiru motatako kantuak eduki ditugu kontuan. Batetik, herrikoi egin diren kantuak hartu ditugu, baina egun sobera ezagunak ez direnak; Mixel Labegueriren "Aitaxiren otoa", kasu. Bestetik, sobera ezagunak diren kantuak daude: "Bagare" edo "Ene herriko neskatxa maite", edo haurrek oso maite duten "Aberriaren mugak" abestia. Hirugarrenik, badira kreazio batzuk ere.

Diskoa "Agorrila" disko-etxeak du banatzen, 15 eurotan, eta geuk ere saltzen ditugu. Gerokjada 500 ale saldu ditugu. ●





Mitologia eta mozorroak Zarauzko ikastolako inauterietan

Koloreak, musika, mozorroak... inauteriak. Euskal Herriko herrietan aurten ere ospatu dira inauteriak, ihauteriak, aratusteak... Eta baita eskoletan ere. Bakoitzak bere erara ospatu chi du: gauza berriak eginez, urteroko chiturari jarraituz... baina mozorroa ahaztu gabe, noski.

Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan orain dela bost urte hasi ziren inauterietan antzekizun bat egiten. Euskal mitologia ardatz harturik, urtero emanizun berri bat eskaintzen dute gurasoan aurrean. Mitologiaren kondariak eta gaur egungo bizimodua uztartzen dituzte, eta aurten Martin txikiren kontakizunaz baliatu dira honretarako.

Orain dela urte asko Zarauzko Iñurritza auzoan nekazariak bizi ziren. Beren lanetan eta zereginetan murgilduta pasatzen zituzten egunak, baina dena ez zen lana izaten. Tartean dantzak eta festak izaten zituzten, eta kirolari iaioak ziren aizkolariak, korrikalariak, pilotariak, sokatiralariak...

Urte batean, ordea, uholdeak jasan zituzten, eta uztarik gabe gelditu ziren. Denak triste eta burumakur zuden, gosearen beldur. Orduan, Martin txiki galtxagorriengana joan zen laguntza eske. Denak batera Marirengana joan ziren, eta hark Pagoetako mendi aldean bizi ziren basajaunengana joan eta arto hazia eskatzeko gomendatu zien.

Martin txiki, korrikalari iaioenen laguntzarekin, hara abiatu zen. Bidean kolore askotako loreak eta animaliak ikusiz, basajaunengana iritsi ziren. Haiek konturatu gabe, arto hazia lapurtu zuten eta herrira jaitsi ziren.



Nekazariak harrera ezin hobea egin zieten eta penak ahaztu zitzaizkien.

Basajaunak, ordea, arto hazia lapurtu ziotela konturatu zirenean, herrira jaitsi ziren kontuak eskatzera. Ez zuten urteetan zehar mendian gordetako hazia eta sekretua nekazarien esku utzi nahi, ez baitziren fidatzen. Horregatik, nekazariak beraien artean ez zirela haserretuko eta erabilpen txarrik ez zutela egingo hitz emanarazi zieten.



Ipuin hori antzeztu zuten inauterietan Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan. Goizeko 11:00etarako iragarrita zegoen emanaldiaren hasiera, eta gurasoak txintxo baino txintxoago zeuden zain, hotzari aurre eginez. 50 minutu iraun zituen antzezkizunak eta ikastolako jolastokia kolorez bete zen: galtxagorri gorri-gorriak alde batetik, lore moreak, horiak eta laranja besterik, mantangorriak batera eta bestera, nekazari andana, ile luzeko basajaunak pauso handiak emanek... Kolore eta musika festa polita osatu zuten denen artean.

Urterko zita

Orain dela bost urte hasi ziren Zarauzko ikastolan inauterietako antzerkia egiten. Hori baino lehen, ikasleak etxetik mozarrotuta joaten ziren ikastolara, nolako inpresioa sortuko zuten pentsatuz. Baina horrek bost minutu baino ez zituen irauten. Hori bukatu eta kito, ez zuen joko gehiagorik ematen, hor bukatzen zen festa. Besterik gabe zerbait berezia janzteak soilik ez du joko handirik ematen, ez bada jolas bat asmatzen edo zerbait egiten. Eta horre-

Besterik gabe zerbait berezia janzteak soilik ez du joko handirik ematen, ez bada jolas bat asmatzen edo zerbait egiten. Eta horregatik otu zitzaien irakasleei inauteriak beste modu batera ospatzea.



xegatik otu zitzaien irakasleei inauteriak beste modu batera ospatzea.

Ikastetxe askotan egiten dira ospakizun bereziak inauterietan, eta Zarautzen mitologiarekin lotzen dituzte inauteriak. Urtero-urtero mitologiarekin lotura duen antzezkizun bat prestatzen dute, gauza zaharrak aprobeztatuz eta gaur egungo egoerara egokituz. Hala dio Josu Txapartegi irakasleak: *“Gure antzezkizunean kondaira mitologikoren oinarria mantendu egiten da. Aurtengoan, esate baterako, Martin txiki basajaunei arto hazia lapurtzen die. Baina basajaunak ez dira tonto zapelaitz batzuk bezala gelditzen eta Martin txiki ondo. Ez, kontuz. Zerbaitegatik zegoen sekretu hura naturan gordeta, eta gaizki erabiltzen bada hondamen hutsa izango da. Guk pixka bat orekatu egin dugu, eta denek dantzan bukatu dute, baina konpromiso batekin: gauzak ongi erabiltzea”.*

Mezu hori helarazi zuten antzerkiaren bidez, baina ez hori soilik. Mezu gehiago ere eman zituzten. Esate baterako, natura eta bere zaindariak mantendu egin behar direla; balio zaharrak normalean onak eta txukunak direla eta horregatik mantendu dela gizartea; gaurko balioekin gizartearen norabidea galduta dagoela...

Hori guztia ulertzea ez da erraza izango agian, baina plastikoki erakutsiz, ikusleei begietatik sartzen zaie. Adibidez, ohartzen dira basajaunak ez direla haserre jaitsi.





Ikasleek asko ikasten dute

Zertarako balio du horrelako emaldi bat egiteak? Merezi al du horrelako lana hartzea? Zarauzko ikastolako irakasleek baietz diote, duda izpirik gabe, eta gauza asko lortzen dituztela baiezen dute. *“Alde batetik, haurrek antzerkia gurasoen aurrean egitea lortzen dugu. Protagonista bihurtzen dira. Gainera, taldean ateratzen direnez, beldurtiak direnak babestuta sentitzen dira besteekin batera ateratzen direlako. Haurrak plazara irteten dira”*. Beste irakaspen handi bat itxaroten ikastea dela diote. Bakoitzaren txanda iritsi arte itxaron egin behar izaten dute. Besteek zer egiten duten ikusi behar izaten dute, eta bitartean itxaron. Hor diziplina dago eta hori oso garrantzitsutzat jotzen dute.

Talde lana da beste elementu bat. Denen artean egiten duten emankizuna da, norberak banaka egitea ezinezkoa dena.

Horrez gain, aurten herriko artista baten parte-hartzea izan dute: Egoitz Lasa aktorearena. Pako Serras irakasleak dioenez, *“ikastolan kanpoko artistak ekartzeko tradizio bat badugu: Oteitza, Mendi, Egoitz... Garrantzitsua iruditzen zaigu artista horiek haurrekin erlazionatzea, irakasleekin ez duten beste harreman bat sortzen delako. Artistarekin beste mundu berri bat irekitzen zaie, eta haurrek beste gauza bat ikusten dute”*.

Agian Egoitz Lasak ez du horrelako hausnarketarik eginga izango, baina berak gustura hartu du parte aurtengo ekitaldian. *“Ilusio handia egin dit ikastolan haurrekin batera antzerkia egiteak. Izan ere, nik ikastolan ikasten nuenean, antzerkiak ez zeukan presentzia handirik, eta gaur egun gehiago duela jakiteak poza ematen dit”*. Zarauzko ikastolan ikasleek antzerkia

Aurten herriko artista batek hartu du parte, Egoitz Lasa aktoreak: *“Ilusio handia egin dit, nik ikastolan ikasten nuenean antzerkiak ez zeukalako presentzia handirik, eta gaur egun gehiago duela jakiteak poza ematen dit”*

ikasgai bezala dute, eta hori positibotzat jotzen du aktore gazte honek. *“Personalki norberarentzat oso baliagarria dela iruditzen zait, bai harremantarako, bai jendaurrean hitz egiten ikasteko, bai jendearekin erlazionatzeko...”*.

Eskolan antzerkia lantzeari ongi baderitzo ere, arazo bat ikusten du Egoitz Lasak: irakasleek beti alderdi pedagogikoari begiratzen diotela, horretan oinarritzen direla. *“Hau ez da oso peda-*

gogikoa... esan ohi dute. Nik uste dut askotan antzerkian pedagogia kontuan hartu behar dela, baina ez dela dena horren baitan egin behar. Bartzuetan askatasuna behar da, bestela beti oso bideratuta egiten baita, zama handiarekin. Agian irakasleek ezagutzen ez dituzten bideetatik ere iritsi daiteke mezua, beti pedagogian oinarritutakoa izan gabe”. Argi dago irakasleek dena “pedagogizatu” egiten dutela, eta artistek bestela ikusten dutela.

Artista gazteentzako proposamena

Josu Txapartegi irakasleak artista gazteei enbidoa botatzen die. *“2 eta 12 urte bitarteko ikasleekin eskolan taldean lantzeko moduko antzerkiak edo argumentuak idatziko balitu norbaitek, seguraski erabili egingo lirateke. Horregatik, horretara animatu nahi ditut artista gazteak”*.

Eta ez hori bakarrik. Eurek badakite ez direla horrelako gauzak egiten dituzten bakarrik. Badakite beste eskoletan ere horrelako emanaldiak aurrera ateratzen direla. Beste askotan, ordea, ez dituzte egiten, eta horiek animatu nahi dituzte. Azken finean, beraien esperientzia egokia ikusten dute iraganaren eta orainaren arteko lotura egiteko, mitologiak baliatuz usadio eta balio zaharrak berreskuratzen direlako egungo bizimoduan txertatzeko. Eta horren beharra badugula ohartuta daude. •



kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Nafarroako Sortzen-Ikasbatuaz- etorkinentzako proiektua

2000. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoak argitaratu zituen datuen arabera (La poblaci n irmi-grante extracomunitaria en Navarra 2000), Nafarroan garai hartan 17.557 etorkin zuden. Horietatik 2.857 Europar Batasunekoak ziren, 230 beste herrialde garatu batzuetakoak eta 14.470 munduko garatu gabeko beste lurralde batzuetakoak. Ikerketa horretan, halaber, Nafarroako D ereduko zonaldeetan 9.658 etorkin bizi zirela dio, horietatik 1.039 europarrak, 5.958 latinoamerikarrak, 1.619 magrebotarrak, 565 afrikarrak eta 477 asiarrak.

Datu horiek ikusirik eta urtetik urtera gero eta etorkin gehiago zetozela oharturik, Nafarroako agintariak errealitate horren aurrean beraien kezka azaltzen zuten hitzaldien nahiz artikuluen bidez. Hala ere, hezkuntza arloari dagokionez behinik behin, ez zen proiektu jakinik martxan jartzen. Beraz, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko kideek, Nafarroako D ereduko eskola publikoei begira (eta batik bat D ereduko



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

zonaldeetan bizi ziren 9.658 etorkinei), haur etorkinen integrazioarako proiektu bat eratzea erabaki zuten 2001. urtean.

Sortzen-Ikasbatuaz-ustez, euskararen normalizazioa etorkinei ere iritsi egin behar zaie Nafarroan. "Euskaraz ikasteko eskubidea" nafar guztientzat eskatzen baldin bada, etorkinek eta horien seme-alabek ere euskaraz ikasteko eskubidea dute. Euskarak euskaldunak behar ditu eta ezinbestekoa da kultura, hizkuntza, erlijio... guztien ekarpena. Nafarroako hiritar batek Nafarroako bi hizkuntzak baldin badakizki, libreago da bertan bizi diren biztan-

leekin komunikatzeko zein beraien pentsamoldea, izaera, sentipenak... ulertzeko. Hala bada, filosofia horrekin, elkarte horrek Nafarroako haur etorkinak Dereduan ahalik eta egokien integratzen lagundu nahi du, bai linguistikoki eta bai kulturalki, etorkinek beraien kultura galdu edota baztertu gabe.

Arestian aipatu dugunez, proiektu hau 2001eko urtarrilean planteatu zen lehen aldiz batzorde batean. Orduantxe sortu ziren lehen galderak: normaltasun osoz hartuko al lukete gurasoek haur etorkinen etorrera? Harrera ona emango al liekete horien gurasoei? Irakasleak prest al daude erronka horri eusteko? Etorkinek zer iritzi daukate beraien seme-alabek euskaraz ikastearen inguruan?... Lanean hasi bezain laster jabetu ziren gizarteari ideia bera eta helburuak ongi azaltzeak zuen garrantziaz. Ondoren, datuak jaso eta elkarriketak egin zituzten guraso elkarteekin, irakasleekin, etorkinen kolektiboekin, unibertsitateko adituekin...

Lan horren lehen fruituak 2002ko urtarrilean ukan zituzten. Sortzen-Ikasbatuaz-ek Nafarroako D ereduko eskola publikoei idatzi bat onartzea proposatu zien, konpromisoen zerren-

**Sortzen-
Ikasbatuazek
Nafarroako D ere-
duko eskola
publikoei begira
(eta batik bat D
ereduko zonal-
deetan bizi diren
9.658 etorkinei),
haur eta etorki-
nen integrazioa-
ko proiektu bat
eratzea erabaki
zuen 2001ean.
Horrela, hainbat
ikastetxek kon-
promiso zerrenda
bat duen idatzia
onartu du.**

da batekin. Beraiek bilatzen duten konpromisoa ez dago irakasleei edota ikasle etorkinei begira soilik, baizik eta hezkuntza komunitate osoari. Ikastetxetara igorri zuten proposamena ondorengo hau da:

“Gaur egun, Nafarroako irakaskuntzan etorkinen integrazio osoa zintzilik dagoen ikasgaia da, eta ez dago, inolaz ere, bermatua.

Horregatik:

Ikastetxe honetako Eskola Kontseiluak adierazten du:

Nafarroan, Euskararen normalizaziorantz, jo nahi badugu, ezinbestekoa dugu etorkinak kontuan hartzea. Deredura ikastera etortzen diren etorkinei integratzen laguntzea izan behar dugu helburu.

Beti “euskaraz ikasteko eskubidea” eskatzen dugu nafar guztiontzat, eta etorkinak nafarrak dira, horrela nahi izanez gero. Gure ustez, Euskarak euskaldunak behar ditu eta kolore guztien ekarpena ezinbestekoa da. Nafar batek Nafarroako bi hizkuntzak ezagutzen baditu, elkar komunikatzeko libreago izanen da eta “nafar biribilagoa” dela esanen genuke. Etorkinek beren kultura galdu edo baztertu gabe, ikastetxe

honek lagundu nahi du, gure irakaskuntza eta kulturaren integratzen.

Horregatik guztiagatik, hurrengo konpromisoak hartzen ditugu:

1. *Gaia aztertzea eta sakontzea gure Hezkuntza Proiektuan sartu ahal izateko.*

2. *Hori horrela gauzatzen den bitartean, datozen neurriak eramanen ditugu aurrera geletan:*

- *Ikasturte hasieran egiten den aurkezpenean haur etorkinak nondik datozen, zein den beren kultura eta abar azalduko da ezaugarriak nagusienak aipatuz.*

- *Beste kulturetako egun seinalatuak aipatuko dira, ospakizun horien esanahia azalduz.*

Bi puntu horien edukiak giro positiboan azalduko dira. Helburu nagusia zera izango da: haurrak sentitu behar du taldeak ezagutzen eta balioesten duela bere jatorrizko kultura, kultura guztiak garrantzi eta balio berekoak baitira.

Gurasoen aldetik neurri hauek hartuko dira:

- *Ikasturteko lehenbiziko asteetan bilerak ireki bat egingo da guraso etorkinekin, beraiek azal dezaten nondik etorri diren, zergatik, nolakoa den beren herrialdea, zer lan egoera duten, zer lortzea espero duten hemen lortzea eta abar.*

- *Haur etorkinentzat eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen lagunduko du Guraso Elkarteak: beren herrialdeko historia, hizkuntza, kultura, ohiturak eta abar landuz.*

- *Komenigarria litzateke lantegiak eta jardunera askotarikoak antolatzea gurasoek elkar ezagutu ahal izateko.*

- *Ikasturte bukaerako jaialdian parte hartuko dute beraien kulturetako dantzak, jantziak, ipuinak, antzerkiak... erakusten, denok ezagutu ahal izateko.*

3. *Erronka hau aurrera eraman ahal izateko, ikerkuntza lana, pedagogia lana, baliabide materialak eta abar erraz ditzan eskatzen diogu Hezkuntza Departamenduari.*





Irakurlea jabetuko zenez eta ares-tian aipatu dugunez, proposamen honetan Sortzen-Ikasbatuazek hainbat pertsona, erakunde eta zentzoren konpromisoa eskatzen du kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko jarduerak, hitzaldiak, lantegiak... aurrera eramateko.

Baina zentroetan proiektu hau martxan jarri aurretik, iritzi bilketak eta galdeketa egingo dituzte Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatueta proiektu hau aurrera eramateko zein ikastetxe leudekeen prest jakiteko. Aldi berean, kontsulten bidez hainbat informazio lortzen saiatuko dira: zein diren irakasleek proiektu honi ikusten dizkieten oztopoak eta gabeziak, zein den etorkinen planteamendua errealitate horren aurrean, ikas komunitateek ikusten dituzten beharrak nahiz desioak kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean, unibertsitateko adituen iritzia beraien planteamendu eta metodologiarekiko, gai horrekin loturik dauden hainbat erakunderen ikuspuntua...

Datuak bildu ostean, matrikulazio kanpaina etorriko da. Matrikulazio kanpaina era askotara gauzatzen da, urtarrila eta otsaila bitartean. Batetik, hainbat hizkuntzatan idatzitako (gaztelania, errumaniera, arabiera...) triptiko bat banatuko dute hainbat mintzategi eta ikastetxeren aurrean, merkatalguneetan, meskiten sarreretan. Triptiko horretan Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoen zerrenda, D ereduazertan datzan, eredu horrek beraien haurrei begira dituen onurak eta laguntzen inguruko informazioa emango dira. Bestetik, hau ere batik bat triptiko bidez, Iruñeko auzoetan daudela D ere-

duko ikastetxeei buruzko informazioa zabalduko dute etorkin komunitate ezberdinak biltzen diren guneetan. Triptiko horiek auzoka banatuko dira eta bertan, gune horretako ikastetxearen inguruko informazioa emateaz gain, ikasketak D ereduaren egiteak dituen onuren berri emango da.

Matrikulazio kanpaina burutzeko prentzas ere baliatuko dira (herri aldizkariak, etorkinen aldizkariak, aldizkari nazionalak...), eta baita aldi berean zentro, ikastetxe eta abarretan emango dituzten informazio hitzaldie ere.

Sortzen-Ikasbatuazeko kideek proiektu honen inguruko informazioa gizarteko hainbat erakunderi, Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari, sindikatuei, gaian diharduten elkartei... igorri die.

Gaur egun, Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko ikastetxean eta Burlatako Ermita Berri ikastetxean, adibidez, haur etorkinei begirako matrikulazio kanpaina martxan dago. Bi ikastetxeok etorkin ugari biltzen diren auzoetan daude. Alde Zaharreko San Frantzisko ikastetxeak, etorkinei begira, bere triptiko propioa ere kaleratua dauka, zeina bereziki auzoko merkatuan eta etorkinen bilguneetan banatzen dute. Triptiko horretan, era labur eta argi batean, ikastetxearen inguruko informazioa emateaz gain, D ereduaren ikasteak dituen abantailei buruz hitz egiten da. •

OHARRA: proiektu honen inguruko informazio gehiago nahi duena zuzenean Sortzen-Ikasbatuazekin harremanetan jar daiteke, telefono edo posta elektronikoa bidez: 948 221 380 / sortzen@arrakis.es

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen
HITZALDIAK

Language, Attitudes and Education in Multilingual cities

Non: BRUSELA
Noiz: 2004ko maiatzaren 27tik 28ra
bilingbr@vub.ac.be

Second Symposium on intercultural, cognitive and social pragmatics

Non: Sevilla
Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra
mpadilla@siff.us.es

Congress on Language Diversity, Sustainability and Peace

Non: BARTZELONA
Noiz: 2004ko maiatzaren 20tik 23ra
www.linguapax.org

I Congreso Internacional "TIC y Autonomía Aplicadas al Aprendizaje de las Lenguas"

Non: Castellón
Noiz: 2004ko maiatzaren 26tik 28ra
www.taaal.uji.es

7th International Conference of the Association for Language Awareness

Non: Lleida
Noiz: 2004ko uztailaren 19tik 21era
ala2004@dal.udl.es

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

**Haur etorkin ugari dituen Gasteizko ikastetxe batean lan egiten ari naiz eta harriturik naukate irakasle batzuen artean entzuten diren komentario arrazistek. Nik uste nuen ikastetxe honetan, etorkin asko daudenez, irakasleek jarrera positiboa izango zutela aniztasunaren aurrean, baina... Askotan beldurtuta joaten naiz etxera! Ordezkapen bat egiten ari naiz ikastetxe honetan eta laster bukatzen zaidanez kontratua, ezin dut errealitate honen aurrean gauza handiegirik egin. Horregatik, txoko hau aprobetxatuz, esan nahiko nieke Euskal Herriko ikastetxeetako zuzendariei kontuz eta adi ibiltzeko irakasle askok etorkinen aurrean dituzten jarrera arrazistekin. Irakasleen aldetik horrelako jarrerak badaude, ez baitugu zereginik errealitate berri honi erantzun on bat emateko. Mila esker.*

M. E.

***Joxemi Zumalabe Fundazioak azaroan Gasteizen antolatu zuen jardunaldian egon nintzen. Material didaktikoen tailerren hizkuntz aniztasuna lantzeko atzerriko eta Kataluniako material didaktiko batzuk erakutsi ziren. Material didaktiko horiek nola edo non lor daitezke? Material horiek euskaratzeko edota euskarara moldatzeko aipatu zuten proiektu hura martxan al da? Eta martxan bada, noizko uste duzue izango direla lehen unitateak kalean?*

Arantza

Erantzuna: Material didaktiko horietako batzuk, www.jaling.es-en aurki daitezke eta besteak lortzeko atzerrira eskatu behar dira. Atzerriko materialak lortzeko ere interes berezia izanez gero, bidali e-mail bat itziaramayo@msn.com helbidera eta inolako arazorik gabe emango zaizkizu telefono eta abarrak. Material hori erosi edo eskuratu baino lehen, lasaiago ikusi nahiko bazenu ere, ez dago arazorik. Berauek euskaratzeko proiektuari dagokionez, aldiz, diru laguntzen kontua dela-eta, oraindik geldirik daude gauzak.

Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkak, galderak eta zalantzak badituzu, idatziezaguzu bi helbide hauek batera: itziaramayo@msn.com edo aldizkaria@hikhasi.com Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkak denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitez!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak martxoa

Argitaipenak



Txakur berde baten istorioa
Seve Calleja
AIZKORRI

Gurasoak banatzen zaizkion neskatilaren istorioa kontatzen du liburu honek. Egoera berriaren ondorioz, as-tean zehar aitarekin bizi da eta asteburuetan amarekin. Aitaren etxean Toto ipotxarekin egoten da, eta amareki dagoenean Puppy txakurra ikusten du kalean. Biak aldatu egin dira bizimodu berriaren eraginez, eta berriz lehengo itxura hartzea nahiko du Martak, horrela aurreko egoerara itzuli nahian •



Txikiak baina bixkorrak
Iñaki Zubeldia
IBAIZABAL

Donostiako Alde Zaharrea bizi diren galtzagorrien bizimodua ezagutu nahi al duzu? Egireun galtzagorri gazteak kontatzen ditu hemen bere ki-deen abenturak, jolasak, ohiturak... Ba al zenekien izaki txiki horiek lan asko egiteaz gain jolasak, lo ugari, eguneroko bainua... behar dituztela? Hori dena eta gauza gehiago jakin ahalizango ditu liburua irakurtzen duenak •



Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa
Henning Mankell
EREIN

Joel mutikoaren burutazioak dira liburu honen ardatz. Rock errege izatea gustatuko litzaioke, eta horren alderdi onak eta txarrak irudikatzen hasten da. Oholtza gainera igo eta gitarra jotzen aritzea gustatuko litzaioke. Aldi berean, aspergarri samarra iruditzen zaio beti jendez inguratuta eta argazkiak ateratzen egotea. Kezka horiek guztiak argitu nahiko ditu •



Adio, adio
Pello Añorga
ELKAR

Birundan saileko liburu honetan marrazkiak eta ipuinaren gaia oso ondo uztarturik daude. Testuak ez ezik, marrazkiek ere gauza asko kontatzen dituzte. Aita batek istripuan hil zaion bere semeari buruz hitz egiten du. Gaia heriotza izanik ere, poesia dario liburuari. Irakurtzean pentsarazten duen liburu ausarta dugu, bilduma horren ezaugarrietako bat delarik hori •



Iguzki lore
GOIZ ALBA- AGORILA

Baigorriko Biletxea ikastetxeko gazteak dira disko honetako protagonistak. Mikel Erramouspe irakasleak 15 urte daramatza "Iguzki Lore" proiektuaren bitartez kantagintzarako gogoia eta zaletasuna pizten eta fruituak ematen ari da. Urte horietan zehar hainbat kantaldi eskaini dituzte eta honakoa hirugarren diskoa da. 14 euskal abesti ezagun biltzen dira •



Didaktika orokorra
Askoren artean
EHU

Liburu honetan didaktika orokorra zertan datzan azaltzen da. Didaktikaren objektu nagusia irakaskuntza/ikas-kuntza prozesuak izanik, horren inguruko azalpenak eta hainbat alderdi aztertzen dira lan honetan. Bestek beste, kultur transmisioan, curriculumean eta bizitzako hainbat esparrutan duen eragina ikusirik, berau bideratzeko laguntza eskaintzen du •

Haur guztiak eskolatzen ahal dituzte eskolak?

Galdera hori egiten du Seaska-ko Integrazio Batzordeak aurten-go kanpainarako. Ahalmen urriko haurrak eskola arruntetan eskolatzeko ahalegina egiteko sortu zen batzordea 1999-2000 ikasturtean. Egun ahalmen urriko 11 haur daude eskolatuak ikastoletan, eta horien kostuari aurre egiteko laguntza eskatzen du Seaskak.

Ez da ohikoa Iparraldean ahalmen urriko haurrak eskola arruntetan eskolatzea, eta Seaska aitzindari lana egiten ari da Hegoaldeko esperientzian oinarriturik. Baina horrek kostu bat du, Hezkuntza Ministeritzak ez baititu bere gain hartzen hezitzaile postuak. Memento honetan lanean ari diren sei lanpostutatik bi baino ez dira Hezkuntza Miniteritzak igorriak. Gauzak horrela, aurten 53.000 euro behar dituzte haur horiek eskola arruntetan eta euskaraz eskolatuak izan daitezten bermatzeko.

Seaskako arduradunek eta gurasoek argi dute ezin dela onartu haur bat baztertua izatea beldurragatik, nagikeriagatik edota ideologiagatik. Hausnarketa bultzatu asmoz, hainbat galdera planteatzen dituzte: ahalmen urriko haurren lekua eskola arrunta ote da? Gai al dira zerbait ikasteko? Eta elebidun izateko? Eta autonomoak izateko? Ez al dira trabagarri eta arriskugarri besteentzat? Eskola al da haurrari egokitu behar zaiona ala haurra eskolari? Zer eskola mota nahi dugu? Norentzat? Zerbateko kostua du? Argi dago galdera horien funtsa ideologikoa dela: nahi al dugu? Eta horrek bigarren zatia dakar: horretarako gai al gara? Eskolak ba ote ditu ahalmenak sostengatzeko, ebaluatzeko, egokitze, medio gehigarriak eskainiz ikaslearen hezkuntza be-



har bereziei erantzuteko? Eta beraz, eskolatzea haurarentzat eraginkor bihurtzeko eta eskolarentzat aberasgarri?

Ezin esan daiteke banakako integrazioa denentzat probetxugarria denik, baina lehentasuna izan behar du kasuz kasu aztertuz haren eraginkortasuna ikusteak bai haurrentzat eta bai eskolarentzat.

Irrati<6 ekitaldia

Martxoaren 13an goizeko 7:00etatik 13:00ak arte **"6 oren ezberdintasunaren alde"** saio berezia egingo da euskal irratietan (Antxeta irratia, Gure irratia, Irulegiko irratia, Lapurdi irratia eta Xiberuko Boza irratietan). Ahalmen urritasunari buruzko esperientziak, arazoak, lekukotasunak eta bizipenak entzun ahal izango dira. Helburua ezberdintasuna integratu nahi duen eskola baten aldeko partaideen sarea zabaltzea da, eta diru aldetik, aurtengo beharrei aurre egiteko kopurua ateratzea. Bai parte hartzeko, bai diru laguntza lutzatzeko, 6 ordu horietan telefono zenbaki hau egongo da zabalik: **(00 33) (0)5 59 37 14 11**.

Integrazioaren filosofia Seaskan

2003ko ekainean Ikastolen Kontseiluak Seaskaren baitan koadro instituzional bat (filosofia eta egitura aldetik) onartu zuen ahalmen urriko haurrak ikastoletan eskolatuak izateko eskubidea eta horren erabilpena bermatzeko. Hona hemen adostutako oinarriak eta helburuak:

Oinarriak

- Ikastola eskola irekia eta integraziailea denez gero, haur guztiei irekia da, bazterketarik gabe.

- Haur guztiek euskaraz heziak izateko eta beren inguru naturalean bizitzeko eskubidea dute, horretarako eskola arruntetan eskolatuak izanez.

- Eskola haurraren beharrei egokitu behar zaie, arrazoi gehiagorik haurrak ahalmen urria duelarik eta hezkuntza behar bereziak dituelarik.

- Haurraren ongizatea ardatz eta irizpidetzat hartuz, familia, eskola eta profesionalen arteko elkarlana baitezpadakoa da.

Helburuak

Ahalmen urriko haurren euskal nortasuna, garapena, autonomia eta gizarteratzea ahal bezainbat lagundu ahal izateko, tokiko ikastolan eramanen den integrazio indibidual eta eraginkorra da Seaskak hobesten duen bidea, eta horretarako bitartekoak eta ahalbideak ezartzea Seaska Federazioaren ardura da. Hala ere, ahalmen urriko haurren kasuak anitzak izanik, integrazio indibiduala hobesten bada ere, ezin da aitzinetik aldarrikatu haur guztientzat eraginkorra eta egokia izanen denik. Maltgutaz gero, jokatu behar da integrazio proiektua baldintzatzen duten hainbat irizpide kontuan hartuz eta erregulariki ebaluatuz, hala nola: haurraren gaitasunak eta beharrak; integrazio proiektuan finkatu egitura (materiala nahiz profesionala); haurraren bilakaera bai garapen kognitibo eta sozio-afektibo aldetik, bai autonomia aldetik; eta familiaren adostasuna eta partaidetza.

Drogak, aisialdia eta gazteria biltzen dituzten ikastaroak

Leitzako, Irurtzongo, Etxarri-Araneko eta Altsasuko eskualdeetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Sakanako Askagintzak gai horien inguruan prestatzeko, hausnartzeko, bitartekari aritzeko eta egoki erantzuteko gogoia duten gazteei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte. **Bitartekarien prestakuntza drogen, aisialdiaren eta gazteriaren inguruan** izena jarri diote ikastaroari.

Landuko diren gaiak honakoak dira: drogak, gazteria, aisialdia, prebentzioa, osasun heziketa eta hezkuntza egitasmoak. Dena dela, proposamen berriak ere gehitu ahal izango dira.

Helburuak horiek dira gai horien in-

guruan oinarrizkoak eta baliagarriak diren ezagupenak eskuratzea; gai horiek elkarren artean nola erlazionatzen diren ikustea eta gure gain zer eragin duten aztertzea; eta gai horien aurrean emango genituzkeen irtenbideak eta proposamenak eraikitzea.

Matrikula: 60 euro

Egutegia: parte-hartzaileen artean erabakiko da.

Izena emateko epea: martxoak 10

Izena emateko tokiak:

Leitza: 948 510 683

Irurtzun: 948 600 694

Etxarri-Aranaz: 948 460 752

Altsasu: 948 467 662

Sakanako Askagintza: 662 065 152

askagintza@euskalnet.net

Bergarako UNEDek prest ditu sentsibilizazio ikastaroak

Bergarako UNEDeko Psikomotritate Eskolak bi urteko heziketa praktika psikomotritateko ikastaroak prestatu ohi ditu, baina hori baino lehen, haurren osasun eta heziketa lanean ari diren profesionalen zuzendutako **sentsibilizazio ikastaroak** eskaini ohi ditu, eta oraingoan **hiru ikastaro** antolatu ditu ondoko helburuekin:

- Taldeka eta mugimenduaren bidez berraurriketa eta ongi egote egogera sentsoriotritzetan parte hartzea.

- Lasaidura bizkorgarriak eta luza-penak bizitzea eta barneratzea.

- Besterekin elkarturik egokitze bizkorgarrian saiatzea denbora eta espazioan kokaturik.

- Norberaren gorputzaren irudira iristea.

- Plano horizontal eta bertikaletan denboraren eta espazioaren aldaerez kontzientzia hartzea.

Ikastaroetako zuzendariak Miguel Angel Dominguez Sevillano, Jon Perez de Arillucea, Alvaro Beñaran eta Mari Jose Intxausti izango dira, denak ere bi urteko ikastaroetako irakasleak eta B. Acouturierren Hezitzaile Taldekoak.

Lehen sentsibilizazio ikastaroa, Bilboko, dagoeneko egin da, eta hurrengo biak honela banatuta daude lekua- ren eta dataren arabera: **maiatzaren 28, 29 eta 30ean Trintxerpe-Pasaia**-ko Virgen del Carmen ikastetxean, eta



irailaren 17, 18 eta 19an Gasteizko Luis Elejalde ikastetxean. Ordu-tegiari dagokionez, ostiralean 18:00-22:00; larunbatetan 9:00-13:00 eta 14:00-19:30; eta igandetan 9:00-15:30.

Ikastaro hauetarakoren batean parte hartzea beharrezkoa izango du gero bi urtetako praktika psikomotritateko ikastaroa egin nahi duenak.

Matrikula epea: ikastaro bakoitza hasi baino zortzi egun lehenago bukatuko da.

Informazio gehiagorako:

UNEDeko Psikomotritate Eskola

69 posta kutxa

20570 Bergara

Bulego orduak:

Asteartetik ostiralera: 10:30-13:00/
17:00-20:00

Tel.: 943 769 033

E-posta: info@bergara.uned.es

Ahokotasuna izango da aztergai Ikastolen Elkartearen jardunaldietan



Ikastolen Elkartearen **XI. Jardunaldi Pedagogikoak** martxoaren 10, 11 eta 12an izango dira Gasteizko Europa Jauregian. Aurten landuko den gaia "Ahokotasuna: testuingurua eta es-

perientziak" izango da. Laz ere gai bera landu zen, Euskal Herritik haratago zeuden esperientziak ekarriz. Aurten, ostera, hemen bertan egindako esperientziak bilduko dira. Galdera eta iradokizun ugari planteatu zituzteko iazko saioan esku hartu zutenek, eta horiek aztertu ditu Ikastolen Konfederazioak aurtengo jardunaldiak antolatzeko.

Horrela, hiru ardatz izango dira nagusi oraingoan. Lehena, gogoeta teoriakoak, aurkezten diren esperientzien oinarrian dauden usteak eta asmoak ezagutzeko. Euskal irakaskuntzan horretan dabilzanek eta eskarmentua dutenek hartuko dute parte, eta kanpotar batzuk ere izanen dira. Bigarrenik, iritzi kontrasteak egiteko guneak sortuko dira, aurkezturiko esperientzien edukia- ren eta horien argudioen sendotasunari irizteko. Kontraste horiek taldeka

zein banaka egingo dira. Eta hirugarrenik, saio praktikokoak egingo dira, esperientziak ikusi-entzun-ukitu-sentitubizi ahal izateko.

Irakaskuntza formalean ahokotasunari ematen zaion lekua eta hizkuntza proiektuen funtsa ezagutzeko parada izango da, baina horrez gain, euskal- kiei ere leku egingo zaie.

Informazio gehiagorako:

Arabako Ikastolen Elkartea (Joseba Aginagalde)

Tel.: 945 233 355

Faxa: 945 135 321

E-posta: aif@ikastola.net

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (Arantza Munduate)

Tel.: 946 300 569

Faxa: 946 300 891

E-posta: ehie@ikastola.net

www.ikastola.net

XXI. mendeko pedagogia: erronka berriak jardunaldia HUHEZIn

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak **XXI. mendeko pedagogia: erronka berriak** izeneko jardunaldia antolatu du **martxoaren 26rako**. Bizia bezala, hezkuntza mundua ere etengabe mugitzen ari dela oharturik, hainbat ekarpen eta esperientzia partekatzea du helburu jardunaldi honek. Hona hemen prestatu duten programa:

9:30 *Sociedad del conocimiento: retos, peligros y respuestas educativas*, Carles Monera (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa).

10:30 *2Dko Diseinuzko softwarea autonomoki ikasteko CD-ROM multi- mediaren aurkezpena*, Iñaki Aldalur

eta Iñigo Aranguren (Antoniano Ikastetxe Politekniko).

11:00 Atsedendia

11:30 *Hezkuntza eredu berria: e-learning*, Arantxa Irigoras eta Nekane Arratibel (HUHEZI).

12:00 *IKT Olazabal institutuan*, F. Begiristain, Karmen Viedma eta Pedro Gaztañaga (Legazpiko Olazabal institutua).

13:00 *Curriculumaren garapena teknologia bitarteko harturik*, Nerea Loidi eta Gustavo Marfull, Eibarko San Andres ikastetxea.

13:30 Bazkaria

15:00 *Hacia la autonomía en el aprendizaje: creación de contextos es-*

tratégicos, Carles Monereo.

16:00 *Proiektuaren garapena interakzioaren bitartez*, Pilar Etxaniz, Antzuolako Herri Eskola.

16:30 Atsedendia

17:00 *Balio kooperatiboak ikasleen garapen pertsonalean*, Arantza Etxeberria, Arizmendi ikastola.

17:30 *Metodologia iraultzailea: PBL (Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza)*, Pili Sagasta eta Alexander Barrantiaran, HUHEZI.

Informazio gehiagorako:

HUHEZI

Tel.: 943 714 157

www.huhezi.edu

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Arratia bailarako eskolak Herrian sareak sortu, European hizkuntza gutxituen trukea

Arratia bailaran 14 urte daramatzate eskolek herriko elkarteekin eta eragileekin sareak sortzen. Elkarlanaren helburuak dira hizkuntzaren erabilera bultzatzea, herriko kultur ondarearen jabe izatea eta ingurumena eza-gutzea eta zaintzea. Eskolek ez dute herritik isolatutako eraikinarak izan nahi, eskolek herriko partaide aktibo izan behar dute, eta herriak agertu behar du ikasgelako lanetan. Hamalau urteko elkarlan honen ondorio dira herri kulturaren oinarrituta eta herriko adituen lanari esker egiten ari diren unitate didaktikoak, herrialdizkaria sortu izana eta Gure Berbatagie izeneko herri hiztegi birtuala.

Identitatean oinarrituta beste urrats bat ere eman dute: Gales, Irlanda, Eskozia eta Norvegiako eskolekin jarri dira harremanetan, kultur eta hizkuntza gutxituen arteko trukeak eginez.

Esperientzia guztion berri emateko eta Europako ekarpenak jasotzeko Nazioarteko Jardunaldiak antolatu dituzte Di-
man, martxoaren 22tik 24ra, Herriko herri: Euskal Herriko Euro-
para izenpean.

Arratia bailarako eskola txikiek sarea osatu zutenean hasi zen abentura guztia. Bailaran landa garapenerako 10 eskola daude, 36tik 50era bitarteko ikasle kopurua dutenak. Orain 14 urte ez zuten espezialistak; lerro bakarra zuten, eta ez zegoen aukerarik tutoretzeko beste batekin gauzak hausnartzeko edo partekatzeko. Horrexek eraman zituen elkarlanera, 1990ean proiektu bateratua osatuz. Bazekiten, azpiegitura falta izanagatik, kultur on-

darea sano aberatsa dutela herriotan, eta soziolinguistikoki ere eskualde aberatsa dutela. Herriko aberastasun hori hartu zuten proiektuaren oinarri.

Sareak zabaltzen: ikastetxe eta herri eragileengana

Eskola txikiek hasitako elkarlana, 1996an eskualdeko gainerako ikastetxe guztietara zabaldu zen, institutua eta Lanbide Heziketako zentroa barne. Ulibarri programak ekarri zuen hiz-





kuntzaren normalkuntzarako sareok zabaltzea. Baina eskolan egiten zen lana ez zen aski kalean euskararen erabilera bultzatzeko, eta herriko taldeak nahiko sakabanatuta zeuden. Koordinazio beharra ikusi zuten, eta herriko taldeekin ere informazio trukerako guneak sortu zituzten.

Herriko kultur eta euskara taldeek eskolei zer eskaini diezaieken ondo azaltzen digu Jasone Alekoak, Arratia-Nerbioi Berritzeguneko euskara arduradunak: *“Kultureta euskara taldeetan borondatez ari den jendearen ekarpenak sano lagungarriak dira hezkuntzakoontzat. Guk egin ezin ditugun ikerketak eurek egiten dituztelako, eta hor dagoelako ikasgelatan behar dugun materiala. Oraindik falta dugun euskal material curricular hori herriko beste eragile batzuk ari dira sortzen, eta euren ekarpenak integratu behar ditugu eskolan”*. Bailarako ikastetxeen sare osoak euskal curriculumaren inguruko hausnarketa egin du, eta jada unitate didaktikoak garatzen ari dira. Unitate didaktikoak sortzeko eskualdeko baliabideetan oinarritu dira, bai bertako kultur ondarean, eta baita bertako aditu, ikerlari eta mitologoetan ere. Jasoneren hitzetan, *“jabetu gara eskualdean bertan intelektualki ere sekulako kapitala daukagula; askotan aditu bila infernuko lekura goaz, bai-*

na bertan, oso hurbil gugandik, adituak ditugu”.

Ikastetxeen arteko lana ez da izan herriarengandik aparte egindako zerbait; herriko mugimenduaren parte dira. Horren adibide garbia da eskolen aldirakaria, herri aldirakari baten sorrera ekarri duena. 1990ean sortu zuen Durangoko institutuak “Arrana” aldirakaria; 500 ale ateratzen zituen bailara oso-rako. Eskolen arteko elkarlana hasi zutenean, “Arrana” aldirakariari gehigarri

Bailarako ikastetxeen sare osoak euskal curriculumaren inguruko hausnarketa egin du, eta jada unitate didaktikoak garatzen ari dira, eskualdeko baliabideetan oinarrituta: bai bertako kultur ondarean, eta baita bertako aditu, ikerlari eta mitologoetan ere.


bat erantsi zioten, “Txiline” izenekoa, Lehen Hezkuntzako eskoletan egindako lana biltzen duena. Laster ikusi zuten bailaran bazegoela herri aldirakari bat sortzeko beharra, hezkuntzaz gain herriko makina bat gai jorratuko zitue-na. Ganoraz euskara taldearekin harremanetan jarrita sortu zen “Begitu” aldirakaria. Herri aldirakari honetan orrialde bat dute institutuko ikasleek.

“Gure berbategie” izeneko proiektuak ere erakusten du eskolok herrian sustraituta daudena: euskalkia bultzatzeko, Igorreko institutuak eta Lemoako eskola teknikoak egin duten web gunea da. Web gunean jarri dituzte ikasleek auzoz auzo, etxez etxe, aitite-amamengandik jasotako berbak, esapide zaharrak, toponimoak, ezizenak...

Hizkuntzaren normalkuntzarako hamaika esperientzia berritzaile sortu dira elkarlanetik. Jasone Aldekoaren hitzetan: *“hasieran sareak sortzea kostatzen den zerbait da, eta ez da ikusten emaitzarik. Baina ezinbestekoa da sareak izatea eta informazio jario hori ziurtatzea; behin hori daukazunean, gero gauzak egitea sano erraza da”*.

Europara: hizkuntza gutxituetako eskolekin harremana

1999an Arratia bailarako eskolak harremanetan jarri ziren Galesko CAER



Proiektu bateratuak dituzte Galesko, Irlandako, Eskoziako eta Norvegiako eskolekin. Nork bere kulturaren berri eskaintzen die beste eskolei. Identitatearen muina hizkuntza da, ordea, eta hori kontu handiz zaindu dute. Nahiz komunikaziorako hizkuntza ingelesa duten, lana baikotzak bere hizkuntzan egin du. Hala, gaelikoz eta suomierazko testuak iritsi dira hemengo haurren eskuetara.

erakundearekin. CAER erakundea Bigarren Hezkuntzako irakasleek osatua da, eta hizkuntzaren normalkuntzarako plan bat dute, hemengoaren antzekoa. Eusko Jaurkitzako Euskara Zerbitzuaren bitartez jarri ziren eurekin harremanetan. Arratia bailarako lau ikastetxe proiektu bateratuak egiten hasi ziren Galesko, Irlandako, Eskoziako eta Norvegiako eskolekin. Ezaugarri bera zuten denek ere: hizkuntza gutxituak direla (gaelikoa, suomiera eta euskara). Harremanerako lingua franka bat behar zuten, eta hori ingelesa zen. Eta zer partekatu, zer trukatu zezaketen elkarren artean? Nork bere kultura, horixe da elkarri eskaintzeko dutena. Eskolan nork bere ingurua landu du, bere herriko ohiturak, mitologia, artea, kirolak... eta gero hori beste herrietako eskolekin trukatu dute. Identitatearen

muina hizkuntza da, ordea, eta hori kontu handiz zaindu dute. Nahiz komunikaziorako hizkuntza ingelesa duten, lana baikotzak bere hizkuntzan egin du. Hala, gaelikoz eta suomierazko testuak iritsi dira hemengo haurren eskuetara. Esperientzia honek ingelesari funtzionaltasuna eman dio, eta irakasleek azpimarratzen dutenez, ikasleak inoiz baino identifikatuago sentitzen dira euren identitatearekin; kanpotarrekin partekatzean jabetzen baitira inoiz baino gehiago nor diren.


Komunikazio teknologiak eta ekologia, eskolako proiektu

Europako eskolekin harremanetan jartzeko, ordea, e-posta edo bideo konferentziak behar zituzten. Aldiz, herri txikietako eskoletan ez zegoen Informazio eta Komunikaziorako Teknologien azpiegitura hori garatua. Beharrak eraginda hasi ziren azpiegitura horiek garatzen. Landa Garapeneko Sailarekin hasi ziren elkarlanean, euren eskualdean Gorbeialde Alkartea dena. Elkarlan horri esker, eskoletan IKT azpiegitura sortzea soilik ez dute lortu, gainera: eskolako proiektuetan ekologia lantzea ere lortu dute, jasangarritasunaren gaia, alegia. Izan ere Gorbeialde Alkartearen ardurapean daude Gorbeialde eta Urkiolako Parke Naturalak. Horrek zer landu asko eskaini die eskolei.

Jardunaldiak martxoan


Hamalau urte joan dira jada Arratia bailaran sareak sortzen hasi zirenetik. Elkarlanaren ondorioz, hizkuntza normalkuntzan hainbat esperientzia berri-zaile sortu dituzte. Eta Europako hizkuntza gutxituekin zubiak eraiki dituzte. Bertako esperientzien berri zabalteko eta European hizkuntza gutxituek sortu dituzten ereduetatik ikasteko, jardunaldiak antolatu dituzte, **“Herririk herri: Euskal Herritik Europara”** izenpean. Martxoaren 22tik 24ra izango dira jardunaldiak, Dimako Axpe jatetxe-ko areto nagusian. Informazio gehiago nahi duenak, jo beza web gune honetara: www.herririkherri.com.

Batzorde antolatzailean lan esker-gegin dutenak hauek dira: Jasone Aldekoa eta Begoña Garamendi (Berritzeguneko euskara arduraduna eta zuzendaria); Mateo Pagazaurtundua, Anjel Larrea, Juantxu Rekalde, Iñaki Esparza eta Errose Aurrekoetxea (Arratia BHiko irakasleak); Maritxu Ozerijauregi (Igorreko eskolako zuzendaria); Jon Albizbeaskoetxea eta Marieli Olabari (Lemoako eskolako zuzendaria eta irakaslea); Iñigo Iruarizaga (Begitu aldizkariaren zuzendaria) eta Peli Manterola (Gorbeialde Alkartea). •



Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegiak (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan



4) Atxikimendua
5) Vigotski

13) Jerome Seymour Bruner
12) Heriotza heziketan

6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza
7) Kohlberg



8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorriak gure eskolan



10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua
11) Howard Gardner




Xirika

GAZTEON KAZETA

irakurtzea
orrena...
harpidetzea
hoberena!

lizardia lan eremua - Ibarrun - 64310 SENPERE |Lapurdi|



Izen - abizenak

EHNA (!) helbidea

Posta kodea Herria Herrialdea

Telfnoa e-posta

Ordainketa mota : txেকেز (zezengorri sarl-ari) biramenduz

Bankua, aurrezki kutxa kontu zenbakia (biramenduzko ordainketa hautatuz gero)

Nire bankuari baimena ematen diot ZEZENGORRI-ri urterako **35 euro** ordain diezaion nire kontuaren kargua

Bidali ondoko helbidera : Xirika gazteon kazeta - Zezengorri sarl - lizardia lan eremua - Ibarrun auzoa - 64310 Senpere (Lapurdi)